

**BARRUAN,
ZURE HERRIKO
ALDIZKARIA**



KIROLA: EHUNDIK GORA DEBAGOIENDAR QUEBRANTAHUESOS-EN /10

Goienkaria

EGUBAKOITZA • 2004ko ekainaren 18a • IV. urtea

160. zenbakia • DOAN BANATZEKO

**European
Newspaper
AWARD**

Goienkaria
ONDOEN DISEINATUTAKO
TOKIKO AGERKARIA EUROPEAN

JOXE JOAN GONZALEZ DE TXABARRI

*“Ezin dezakegu hiriburua
puntako Monako bihurtu eta
probintzia basamortu” /8-9*



Goienka2a

Udako solstizioan,
suaren gainean
dantzan



JUAN ANTONIO MIGURA

Zortzi gudariren gorpuak Elgetan

Gerrako zortzi gudari fusilatuen hezurdurak aurkitu ditu Arantzadik Elgetako bi tokitan. Hain justu ere, 1937ko apirilaren 20tik 23ra bitartean Elgetako frontean hildakoenak dira aurkitu dituzten gorpuak. Apirilean izan zuen Arantzadik Elgetako toki horien berri, eta ordutik hona lanean aritu da, gerrako fusilatuen gorpuak bila. Bi gunetan egin dituzte lanak, Intxortan eta Antsoategi baserrian. Hildako horien senitartekoekin batera aurkikuntzaren berri eman zuen Arantzadi zientzia elkarteak eguaztenean Elgetan. /5

ASTEKO GAIA: POLEMIA BIZIBERRITU EGIN DA

Ibarrekoon ahotan dabil berriz ere AHT

Debagoienean hain eragin handia izango duen Abiadura Handiko Trenaren proiektuaren gaineko eztabaida biziberritu egin da azken egunotan, eta ibarreko eragileek ere iritzia agertu dute horren inguruan.

Izan ere, alde batetik, Jaurlaritzak gaur bertan aditzera eman ditu ingurumen ikerketa berri

baten emaitzak, AHTren aldekoak, eta lanak aurtun hasiko direla esan du lehendakariak.

Hori dela eta, ibarreko aurkako mugimenduek “orain” mobilizatza deitzen dute; bestetik, Debagoieneko erakunde publikoak eta hainbat eragile ekonomikoak AHTren aldeko jarrera berretsi dute. /2-3

ATCE elkarteak bihar inauguratuko du egoitza

Buruan min hartutako eta buru-hezurreko traumatismoarekin lotutako elkarte da ATCE. Buruarekin lotutako gaitzen edo kolpeen ondorioz, kaltetuta geratu diren gaixoak zaintzen dituzte. Ekainaren lehen zabaldu zuen egoitza berria. Are gehiago, zor-

tzi-bederatzi gaixorekin lanean dabilta dagoeneko. Edozelan ere, bihar, zapatua, inauguratuko dute zentroa, Arrasaten; edozelan ere, ATCEk eskaintzen duen zerbitzua ibarreko gaixoei zuzenduta dago. Irailtik aurrera 12-14 bat lagunekin hasiko dira lanean. /4

**BARRUAN, GEHIGARRIA:
SAN JUANAK
ARRASATEN**



BERGARA

UNEDek aurkeztu du datorren ikasturteko eskaintza

Gizarte Laneko diplomatura berria izango da Bergarako UNED zentroan datorren ikasturtean, baita Industria Ingeniaritza Teknikoaren barruan sartzen diren bi espezialitate ere: Mekanika eta Elektronika. Hala, 27 titulazio eskainiko ditu 2004-2005ean. Egun, 2.000 ikasle baino gehiago ditu UNEDek, eta 60 irakasle. /4

ARETXABALETA

Madrazok 20 etxebizitza sozial zozketatuko ditu

Datorren eguaztenean, ekainaren 23an, 20 etxebizitza sozial zozketatuko ditu Eusko Jaurlaritzak Aretxabaletan. Kaminerokua baserria dagoen lekuan, Tubos lantegi alboan egingo dituzte etxeok, nahiz eta oraindik ez diren hasi eraikitzen. Udaletxeko garbaran, 12:00etan, izango da ekitaldia. /6

www.beds.es
Udaberrian
Prezio freskagarriak
ohetan
funda nordikoetan
maindireetan
koltxoietan

Deskantsatu nahi?
bede
Dendak

Zarugalde, 25 / ARRASATE / Tel.: 943 77 18 35

AHTz eztabaida, inoiz baino beroago

~~ez da hobetu~~
hobetu da
nire bizi-kalitatea

**150.000 euro, zainketa, laguntza
eta gizarteratzea sustatzeko**

kutxa gizarte ekintzan, premiarik handiena dutenei nahi diegu lagundu geure lanarekin. Horregatik, **kutxazabalek 150.000 euroko dirulaguntza eskaini dio ATECE-Gipuzkoari, Arrasaten** Traumatismo Kraneoentzefalikoa eta Jaiotzetikoa ez den Garuneko Kaltea duten pertsonentzako Eguneko Zentro bat finantzatzearren. Hartara, gaixoei eta hauen senitartekoei laguntza eskaintzeko gune bat sortuko dute. Orain ere, beti bezala, pertsonengandik hurbil aritzea baita **kutxa gizarte ekintzaren** lana.

www.kutxa.net



gizarte ekintza

- AHTren Aurkako Asanbladak itxialdia egingo du asteburuan
- Jaurlaritzak egitasmoaren aldeko ingurumen datuak aurkeztu ditu

LEIRE KORTABARRIA

Abiadura Handiko Trenaren proiektua hizpide da berriro ere egunotan. Gaiaren inguruko eztabaida aurrera doa, eta ez hori bakarrik; iritzi mugimendu berriak sortu dira. Debagoienean, eztabaidak lehen bezain sutsu jarraitzen du.

Garraio Sailak gaur bertan, egubakoitza, aditzera eman ditu ingurumen ikerketa baten ondorioak, proiektuaren aldekoak. Lehendakariak ziurtatu du lanak aurten hasiko direla, nahiz eta azken hitza Sustapen Ministerioak duen. PSOeren gobernuak geldiarazi egin ditu *Euskal Y*-aren zortzi zatiren esleipena (tartean, Gasteiz-Arrasate zatia).

Europatik ere izan da berririk AHTren gainean. Izan ere, orain Europak ohartarazi du Kohesio Fondoko dirulaguntza "arriskuan" egon litekeela. Izan ere, EUk ez du *Euskal Y*-a lehen mailako lehentasuneko proiektuen multzoan sartu, alegia,

2010era bitartean urtero 10.000 milioi euroko finantzazioa jasoko duten proiektuen multzoan. Albisteon aurrean, lehendakariak berretsi egin du AHTren aldeko apustua.

Aurkako mugimenduei dagokienez, asteburuan, AHTren Aurkako Asanbladak itxialdia egingo du Urbinan. Helburua da AHTren aurkako mugimendua biziberritzea. Arrasaten gelduena egingo du harako autobusak, 12:30ean.

AHT GELDITZEKO GARAIZ

Debagoienean, AHTk berebiziko eragina izango luke hainbat herritan, batez ere Arrasaten, Eskoriatzan, Bergaran eta Antzuolan. AHT Gelditu! Elkarlana taldeko Mila Elortza bergarrak dioenez, "oraindik garaiz gaude AHT gelditzeko. Lehendakariak esan du, bai, lanak aurten hasiko direla, baina Jaurlaritzak ez du epeen gainean zeresanik. Angiozarren, behintzat, ez dira sartu, badakite-eta ez dela legezkoa". Bere ustez, Europak

DATU TEKNIKOAK

AHTren helburuak eta hainbat datu: abiadura, ibilbidearen luzera...

Abiadura Handiko Trenaren proiektua 1990ean sortu zuen Espainiako Gobernuak. Helburua da penintsula Europarekin garraibide moderno batez lotzea, eta EAEko barne komunikazio eta garraioa indartzea, merkantzia zein bidaiariendako. Zaharkituta gelditu den trenbide sarea ere ordezkaturiko du.

190 kilometroko ibilbidea du, eta 3.000 milioitik gora euro inbertituko dira. Sei geltoki izango ditu; guretik gertukoena, Ezkio-Itsason. Europako Trenbide Sare Berriak onartutako zabalera neurriak erabiliko dira. Abiadurari dagokionez, 90 eta 230 km/h bitartekoa izango da.

AURKEZPENA GAUR

Ingurumen ikerketa berria, AHTrendako oso mesedegarri

Ingurumen ikerketa berriek AHTren aldeko ondorioak izan dituzte, Jaurlaritzak gaur aditzera eman duenez. Ikerketak dioenez, EAEko ibilgailu bidezko garraioa Europar Batasunarekiko abiada bikoitzean hazten da, eta merkantziak, hirukoitzean. Hori dela-eta, EAEk, ez du Kyotoko hitzarmena errespetatzen. Gurean, BPG-aren (PIB) %9 hartzen dute garraio kostuek, gehienak, errepidez. Garraio Sailak aurreikusten du AHTk egoera hori konpondu eta erregai, gas kutsatzaile eta bidai denboran asko aurrezte ahalbidetuko lukeela. European, hegazkina, errepideak eta AHT duten lekuetan egin dute azterketa.

atzera bota du proiektua "ez zuelako europar arauetako bat bera ere betetzen". Mila Bruselan izan zen, euren iritzia Europar Batasunari aurkezteko, eta horren gainean harremanetan jarraitzeko promesarekin etorri ziren.

AHTren aurkako mugimenduan, korrante berri bat ere sortu da. Tartean dago hainbat ibarrek, Angiozar Batzarra, adibidez. Euskal sindikatu nagusiek, Aralar, Batasuna eta Ezker Batua alderdiek eta hainbat herri mugimenduk babestutako Erabilgarritasun Sozialeko Euskal Trenbide Sarearen aldeko proposamena. Euren eztabaida gunea sortzea eta "ahalik eta eragile, norbanako eta elkarte politiko gehien adostasunaren bidez", trenbide eredu bat diseinatzea proposatzen dute. Proposamenaren berri eman diote Eusko Jaurlaritzari.

EKONOMIARENDAKO, EZINBESTEKO

Ibarreko hainbat eragile garrantzitsuek behar-beharrezko ikusten dute AHT, eta Jaurlaritzari proposamenak egin dizkiote. MCC taldeak dio: "Eibar-Gasteiz autobideak errepidez ahalmen handiko bidea izatearen beharra aseko du, eta AHT konponbide egokia da trenbideari dagokionez. Ez dugu eztabaidatuko ibarreen 300 km/h hartu beharko lituzkeen edo ez, baina beharrezko ikusten dugu 200 km/h abiadura gaintzea, Arrasate inguruan geltokia izatea, eta pertsona eta merkantzien garraioa bermatzea".

Mankomunitatea eta udalak guztiz bat datoz proiektuarekin, eta diote ingurumen inpaktua konpentsatzeko modua dagoela. Eskoriatzako alkate Juan Karlos Bengoak dio: "Garraio sailburuari eskatu genion konexioa bidera zezala ibarretik, gutxienez merkantziak eraman ahal izateko, eta gero, bidaiariak ere bai". Mankomunitateko presidente Ignazio Lakuntzak dio: "Azpiegitura egin egingo da, eta pentsatu behar dugu zertan irabaz dezakegun eskualde moduan".

*Debagoienean
izango duen eragina
dela-eta, aldeko eta
aurkako jarrerak
oso tinkoak dira*



Alvaro Amann Garraio sailburua, AHTaren gaineko aurkezpen ekitaldi baten.

Aldeko hamar arrazoi

1. Errepideak itolarrian daude. AHTk errepide sarearen garraio ahalmenaren bikoitza du.
2. Eguneko 6.000 auto eta kamioi gutxiago ibiliko dira, honek dakarren arazo eta kutsadura murrizketarekin.
3. Egunero 27.000 gasolio litro aurreztu ahal izango dira. Oro har, energia aurrezpena oso altua izango da.
4. Negutegi-efektua eragiten duten gasen 425.000 kilo eguneko emaria saihestea ahalbidetuko du.
5. Errepideek baino 10 zarata puntu gutxiago eta aireportuek baino 100 gutxiago eragingo ditu.
6. Gaur egungo autobideek hartzen duten leku fisikoa baino hiru aldiz gutxiago hartuko du AHTk.
7. Eguneko 634.000 euro aurreztuko dira erregaietan, istripu arriskuan, ibilgailuen desgastean...
8. EAEko hiriburuak elkarrekin modu azkar eta seguruan lotuko ditu; baita EAE Europarekin ere.
9. Ibarra bezain gune ekonomiko garrantzitsu batendako Europarekin lehitzeko ezinbesteko azpiegitura da.
10. Datozen 20 urteotan, modu zuzenean edo zeharka, 25.000 lanpostu berri sortuko ditu.



AHTaren aurkako ibilaldia egin zen Bergararik Itsasondora.

Aurkako hamar arrazoi

1. Lurra txikitzen du: 128 km tunel (lau, Udaltzen); 65.000.000 metro kubikoko lur mugimendua...
2. Enpresa eta multinazionalak globalizazio ekonomikoa eta kulturala bultzatzeko proiektua da.
3. Ibarreko ekonomiak alde asko ditu: ekonomia herrikoa, baserrikoa, ere badago; hori kaltetuko du AHTk.
4. Milaka milioi diru publiko xahutuko dira eraikuntza enpresen, banketxeen eta politikarien mesederako.
5. Auto ilarak eta errepideen saturazioa ez du konponduko. Horretarako beste neurri batzuk behar dira.
6. Mugikortasunaren eta azkartasunaren ideia saltzen du askatasunaren sinonimo bezala.
7. Zentral termiko eta nuklear asko eraikiko dira; baita harrobi gehiago ere, eraikuntza materiala ateratzeko.
8. Hiri handiak gehiago indartzen dituzenez, herri txiki-tako zerbitzu eta aberastasun kulturala galtzen da.
9. Ibarreen ingurumen eragin larria izango du, baina geltoki bat bera ere ez dute ipiniko.
10. Soinu kutsadura handia, gizakion eta hegaztien osasunean eragin zuzena izango lukeena.



MEMESA SL

Industri hornidurak

943 71 24 25

Txuringo Jatetxea

BEREZITASUNA:
txerrikumea eta
bildotsa egur-labean

Eguneko menua
Asteburuetan menu bereziak
Karta
Ezkontzak,
jaunartzeak eta bataioak

Osintxu
Tel.: 943 76 48 63
DOMEKETAN ZABALIK

AKADEMIA
BASTIDA

Araba etorbidea 3, 1. pisua, Arrasate.
Tel.: 943 793 533 Faxa: 943 790 628
E-maila: bastida@bastida.es

Laguntza klaseak
Enpresa zientziak
Informatika
Internet
Programazioa
Autocad
Kontabilitatea
Mekanografia
Nominak
Web orrien diseinua
Photoshop
Ingeniaritza (baita abuztuan ere)
Informatikako ekipaien
mantentze eta
konponketa

Udako
ikastaroak
2004



Besteak beste, orotariko gela, jangela, egongela, fisioterapiako gela eta garbiketarako egiteko egokitutako komuna ditu zentroak.

ATCE elkarteak bihar inauguratuko du Arrasateko zentro berria

Buruan min hartuta dauden gaixoekin egiten du lan ATCE elkarteak

UBANE MADERA

Bihar, zapatua, bailarako ATCE zentroa inauguratu dute Arrasaten. Besteak beste, elkarteak ordezkari eta bazkideak eta Diputazioko, Kutxako, Fagorko eta Arrasateko Udaleko ordezkariak parte hartuko dute inaugurazio ekitaldian.

Buruan min hartutako eta buruzurreko traumatismoarekin lotutako elkarteak da ATCE. Buruarekin lotutako gaitzen edo kolpeen ondorioz, kaltetuta geratu diren gaixoak zaintzen dituzte. Ekainaren lehen zabaldu zuen egoitza berria. Are gehiago, zortzi-bederatzi gaixorekin lanean dabilta dagoeneko. Edozelan ere, gaur inauguratu dute zentro hori, Arrasaten, baina ATCEk eskaintzen duen zerbitzua ibarreko gaixoei zuzenduta dago. Aurreikuspenen arabera, irailetik aurrera 12-14 bat lagunekin hasiko dira lanean Arrasateko zentroan: Eskoriatza, Aretxabaleta, Bergara, Arrasate, Sorluze eta Eibarko gaixoekin. Hala konta-

tu digu Karmele Barrutiak, zentroko arduradunetarikoa batek. Azaldu digu, oro har, helburua dela urtebetean edo urtebete pasatxoan hamar gaixo izatea egun osoan. Izan ere, elkartearen diru-iturri garrantzitsuenetarikoa bat bazkideen kuotak izaten dira. Bestela, dirulaguntzen bitartez, zenbait enpresa eta pribaturen laguntzei esker eta elkarteak langileek egiten dituzten ekimenei esker (txosnak jaietan...) dago zabalik ATCEren zentroa. Zentro horretan lau lagun dabilta lanean: logopeda, fisioterapeuta, erizain-laguntzaile eta psikologo bana; eta astean birritan hezkuntza berezirik hezitzaile bat ere etortzen da.

Orain dela bospasei urte zabaldu zuten ATCE elkartearen Arrasateko zentroa

ATCE ELKARTEAREN ZERBITZUAK

ATCEko gaixo bati honako zerbitzua ematen zaio: 08:00etatik 19:00ak arte zentroan egon daiteke, baita bazkaltzen ere. Balorazio neuropsikologikoa egiten diote ikusteko zein gabezia duen eta zer landu behar duten berarekin; hiru hilean behin ebaluazioak egiten dizkiote; talde-lanean birgaitze kognitiboan lantzen dute (memoria, atentzioa...); tratamendu psikologikoa dituzte, baita auto-laguntza taldeak ere, oraingoz, gaixoendako, baina asmoa da familiei ere eskaintzea zerbitzu hori eta bestelakoak. Horrekin batera, aisialdia landuko du: eskulanak, irteerak... Eta fisioterapia eta logopedia zerbitzuak ere badi-tu, aparte ordaintzekoak.

ZERBITZUEN PREZIOAK

Zerbitzu horien prezioak honakoak dira: egun osorako, bazkari eta guzti: 270 euro hilean; bazkari barik: 240 euro. Egun erdirako: 120 euro. Eta aukera dago egunero joan beharrean astean zenbait egunetan joateko. Horiei proportzioan kobratuko zaie.

UNEDek aurkeztu du datorren ikasturterako eskaintza

27 titulazio eskainiko ditu, iaiz baino hiru gehiago

OIHANA ELORZA

Udazkenean hasiko da datorren ikasturtea, eta joan den urtean baino hiru titulazio gehiago eskainiko ditu Bergarako UNEDek. Gizarte Laneko diplomatura berria izango da, baita Industria Ingeniaritza Teknikoaren barruan sartzen diren bi espezialitate ere: Mekanika eta Elektronika. Hala, 27 titulazio eskainiko ditu 2004-2005 ikasturtean.

Egun, 2.000 ikasle baino gehiago ditu UNEDek, eta 60 irakasle. Diplomatura eta lizentziatuz gero, prestakuntzako beste ikastaro eta zerbitzu batzuk ere eskaintzen ditu: hizkuntzak, 25 urte baino gehiago dituztenak unibertsitatean sartzeko behar duten prestaketa eta irakasleei zuzendutako ikastaroak.

UDAKO IKASTAROAK

Datorren martitzenetik aurrera, berriz, udako ikastaroak hasi-

ko dituzte UNEDen bertan. Dagoeneko 250 ikasle baino gehiagok eman dute izena, eta aurreko urteetan baino aditu gehiago etorriko dira.

Aurten 18 ikastaro, mintegi eta tailer eskainiko ditu ekainaren 22tik uztailearen 2ra bitartean eta edonorendako dira: bertsoak, herri kirolak, literatura, kirola, haurren hezkuntza, besteak beste. Datozen adituen artean, berriz, Xabier Amuriza, Iñaki Perurena, Fernando Morillo eta Juanjo Olaizola daude, besteak beste.

Gizarte Lana eta Ingeniaritza barruko Mekanika eta Elektronika atalak dira berrikuntzak



Marko juridikoaz aritu dira politikariak

Elkar Hezi ikastetxeko batxilergoko ikasleek gonbidatuta, Ezker Batua alderdiko Antton Karrera, Batasuneko Joseba Permach, Eusko Alderdi Jeltzaleko Jose Ramon Beloki, Eusko Alkartasuneko Martin Aranburu eta Aralar alderdiko Iñaki Irazabalbeitia marko juridikoaz aritu ziren hizketan, martitzenean, Oñatiko Santa Ana antzokian. Alderdi Popularrak ez zuen gonbidapena onartu, eta Alderdi Sozialistak baietz esan bazuen ere, ezin zuela etorri esan zuen aurreko egunean. /O.E.

Txinatar jatetxea
DRAGON ORIENTAL



Etxera eramaten dizugu janaria

- Ostiral eta zapatu gauetan izan ezik
- Gutxieneko eskaria 12 euro
- 1,8 euro etxera eramateagatik

- 30 euro baino gehiagoko eskarrietan, garagardo txinatarraren opari
- 40 euro baino gehiagoko eskarrietan, botila bi txinatar likore edo garagardo txinatar bi opari

- 20 minutuan etxean
- Arrasaten bakarrik

943 79 85 33

Araba etorbidea 3 ARRASATE



IKASKETA ZENTROA
ILE APAINTEZ-ESTETIKA

MATRIKULA EPEA ZABALIK
Maila goreneko diplomatura

GASTEIZ
Santiago etorbidea 25
(autobus geltokiaren ondoan)
945 27 91 33



GANESHA TATTOO

Olarte 43 bis Arrasate
943 71 18 24, Mentxu

PIERCING RASTAK GROW SHOP

Gerrako zortzi gudari fusilatuen hezurdurak aurkitu ditu Arantzadik Elgetako bi tokitan

Intxortan hiru pertsonaren arrastoak aurkitu ditu, eta Antsoategi baserrian, beste bostena

OIHANA ELORZA

1936ko urriaren 4tik 1937ko apirilaren 24a arte egon ziren gudarien batailoak Elgetan. Ofentsiba asko jasan zituzten; okerrenak, 1937ko apirilaren 20tik 23ra bitartean. Orduan hildako gudarien gorpuzkiak aurkitu dituzte orain.

Apirilean izan zuen Arantzadik Elgetako toki horien berri, eta ordutik hona lanean aritu da, gerrako fusilatuen gorpuzkien bila. Bi gunetan egin dituzte lanak, Intxortan eta Antsoategi baserrian.

INTXORTAKO GUDARIAK

Intxorta guneko Zabaleta mendian hiru pertsonaren gorpuzkiak aurkitu ditu Arantzadik. Zientzia elkarteak egindako ikerketen arabera, etxola batean zeuden hiru gudari haiek obus batek hil zituenean. Obusak berak egindako zuloan lurperatu zituzten.

Gudari horietako bat Juan Mari Bautista Elizegi zen, donostiarrak. Haren anaiak, Jabierrek, ondo zekien 23 urteko anaia han hil zutela, baina ezin zuten atzera. Gipuzkoako Auzitegira ere joan zen, anaiaren paperak eskatzera, baina han ez zela agertzen esaten zioten. Hilda zegoela bazekien, baina ez zen inon ageri, ez lur azpian, ez paperetan. Hain zuzen ere, Jabierrek eskatu zion Arantzadi elkarteari anaiaren gorpuzkiak aurkitzeko, eta horrelaxe hasi zen Arantzadi lanean.

Antonio Iturricastillo elgetarrak 1937ko apirilean euri asko egin zuela du gogoan. Euren etxera gudari asko joaten ziren ogia erosi edo arropa garbitu eta lehortzera. Zazpi urte zituela, gudarien gorpuzkiak zuloa nola botatzen zituzten ikusi zuen Antoniok etxeko leihotik. Antoniok emandako argibideak oso lagungarriak egin zaizkio Arantzadiri, eta Antoniok lagundu die Intxortako gudarien hobia aurkitzen.

Intxortako hobian hiru gorpuzki aurkitu dituzte, egoera one-



IRATI AGIRREAZALDEGI

Gorpuzkiak egoera onean aurkitu dituzte, baina ez daude ziur erabat identifikatu ahal izango dituzten edo ez.

an hirurak. Hezurak ez ezik, larruzko oinetakoen arrastoak ere aurkitu dituzte gune horretan, baita gudariak etxolaren teilatuko haritz zatiak ere.

ANTSOATEGI BASERRIAN

Antsoategi baserriko Victor Garaik ondo gogoan dauka 1937ko apirilean gertatu zena. Toki arriskutsua zela eta handik joateko

abisua jaso zuten. Victorren aitak, ordea, han gelditzea erabaki zuen. Seme zaharrena eta izeba zaharra ere aitarekin gelditu ziren. Baina soldaduak agertu, eta tiroz

LOURDES HERRASTI / ARANTZADI ELKARTEA

"Gudari abertzaleek eramaten zuten plaka du batek gerrikoan"

Apirilean izan zenuten gorpuzki horien berri, ezta?

Bai. Ordutik hona ikerketak egiten aritu gara. Elgetako lagunek lagundu digute kokapena zehazten. Dugun informazioaren arabera, zazpi gorpuzki daude hemen, Antsoategi baserriaren inguruan, baina oraingoz bost aurkitu ditugu. Lau elkarrekin daude, eta bosgarrena etxetik metro gutxira dagoen zuhaitz baten azpian topatu dugu. Indusketa lanekin jarraituko dugu, ea beste gorpuzkiak aurkitzen ditugun.

Nola daude gorpuzkiak?

Obusak egindako zuloan bertan daude lurperatuta. Etxe ondoan fosan dauden lau gorpuzkiak, baten burua, esaterako, zeharo lehertuta dago. Argi ikusten da tiroz hil zutela. Gainontzekoetan, hezurak ez ezik, objektu pertsonalak ere aurkitu ditugu: sua pizteko metxero bat, oinetako arrastoak, alkandorako botoiak, sardexka eta gerrikoa, besteak beste.

Plaka berezi bat ere topatu duzue, ezta?

Bai. Euskal gudariak erabiltzen zuten plaka bat da. Gerriko-



Lourdes Herrasti.

Hezurak ez ezik, botoiak, oinetakoak metxeroa eta sardexka bat ere aurkitu dituzte

hil zuten aita. Bederatzi urteko semea eta izeba ezkutatu, eta ez zituzten aurkitu. Hurrengo egunean, berriro bueltatu ziren soldadu mairuak; aitaren gorpua hartu eta Elgetako hilerrian lurperatu zuten.

Victorrek bazekien jaiotzearen ondoan hobiak egin zituztela gorpuzkiak lurperatzeko. Lehenengo, baserriaren ondoan dagoena, berehala aurkitu zuten. Zulo horretan lau gizakiren gorpuzkiak topatu ditu Arantzadik orain arte, baina gehiagorenak ere badaudela uste du. Bigarren hobia martitzenean aurkitu zuten. Indusketa lanak egiteko makinak erretiratu behar zituzten unean, zuhaitzaren azpian hasi ziren begira, eta hantxe aurkitu zuten bosgarren pertsona baten hanka hezurra.

ak du plaka. Beste behin Asturiasen aurkitu genuen horrelako bat, baina Euskal Herrian ez.

Badakizue noren gorpuzkiak diren?

Ez. Hemen egun batzuk egingo ditugu lanean; hezurak banan-banan jaso, ondo bildu eta Donostia eramango ditugu, ikertu eta aztertzeko. Egun haietan zein batailoi zeuden hemen badakigu, gutxi gorabehera, eta orain izenak kontrastatu eta ikertu egin behar da. Hala ere, ez dakit posible izango den gorpuzki guztiak erabat identifikatzea.

Noche y Dia
Morfeoren besoetan
Atsedeen Etxea


Adriano VI, 17
GASTEIZ
Tel./Faxa: 945 21 42 24



ARRASATE

Udalak bidalitako uraren ordainagiri berriak kezka piztu du herritarrengan

Urtarriletik martxora arteko ur-kontsumoaren gaineko ordainagiri berria bidali die Udalak herritarrei, eta horrek harridura piztu du askoren artean. Hori dela eta, Udalak jakinarazi du agiriaren helburua herritarrei informazio egokiagoa bidaltzea dela. Adibidez, ur-kontsumoaren gorabeherak agertzen dira, eta euskaraz, gaztelaraz edo bietara jaso daiteke. Hori bai, kontuan hartzeko aldaketak ere baditu: hil batean irakurtzen ez diren minimoak ez dituzte deskontatuko hurrengoan, eta tarifa berriak ezarri dituzte. /U.M.



ANTZUOLA

Alardearen gaineko erakusketa irekiko dute bihar, zapatua

Mairuaren Alardearen Elkarteak eta Udalak erakusketa antolatu dute datozen bi asteburutarako; Olanar etxeko erakusketa aretoan jarriko dute erakusketa. Alardearen gaineko material ugari ikusi ahal izango dugu: argazkiak, dokumentuak, alardeko pertsonaien jantziak, armak, bandera... Zapatuetan 18:30etik 20:00etara egongo da zabalik; domeketan, berriz, 12:00etatik 14:00etara eta 18:30etik 20:00etara.

Mairuaren Alardearen Elkarteak maiatzean sortu zuten, eta euren helburua da alardea indartzea; horretarako, euren zereginetako bat da alardea ezagutaraztea. Helburu horrekin antolatu dute bihar, zapatua, zabalduko duten erakusketa. /AINTZANE IRIZAR

ARAMAIO

Bi aramaioar Euskal Herriko Eskolarteko Bertsolaritza Txapelketan

Araba ordezkatzuko dute Markel Arriolabengoa eta Iker Agirre bertsolari gazteek biharko lehiaketan. Izan ere, Euskal Herriko Eskolarteko Bertsolaritza Txapelketa jokatu dute, Mungiako pilotalekuan. Goizez eta arratsaldean izango da lehiaketa. Euskal Herriko probintzia guztietako ordezkariak lehiatuko dira, guztira, 23 lagun. Hain zuzen ere, norbere probintziako eskolarteko lehiaketan irabazle izan diren bertsolari gazteek jardungo dute lehian. Unai Iturriaga ibiliko da haiei gaiak jartzen. /U.M.

ELGETA

Kiroldegiko Bola-Toki taberna lehiaketa publikora aterako du Udalak

Kiroldegiko Bola-Toki jate-txeaz ia bi urtez arduratu ostean, bertan diharduen taldeak ez du kontratua berrituko. Hori dela eta, Gobernu batzordean baldintzak adostu ostean, lehiaketa publiko egingo dute zerbitzu horren ustiatetaren kargu beste norbait egiteko. Tabernaz ez ezik kirol instalazioetarako sarrera kontrolatzeaz eta instalazio horiek garbitzeaz ere arduratu behar dute. Uztaila amaitu baino lehen jabe berrien esku laga nahi du kiroldegiko taberna Udalak. /I.A.

OÑATI

Oñati Hiria literatura lehiaketako sariak eman ditu Kultura Sailak

Olerkia, ipuina eta bertso paperak sartzen dira Oñati Hiria literatura lehiaketan, eta hiru sari ematen dituzte atal bakoitzean: bi lan onenak eta oñatiar onena saritzen dituzte.

Aurtengo lehiaketan, olerkien atalean, Odei Izagirrek irabazi du, *Zainetako abenidak* lanagatik. 400 euro irabazi ditu Odeik. Bigarren saria, 250 euroko diru-saria, Irati Goikoetxea Asurabarrenarendako izan da, *Kristalezkoak ditut ezpainak aspaldian* lanagatik. Herriko lanik onenaren saria, berriz, Asier Osinagak irabazi du, *Ni ez naiz Granadako errege* lanagatik. 100 euro poltsikoratu ditu hark.

Ipuinen atalean, hutsik gelditu dira hiru sariak. Epaimahaiak ipuinetan saririk ez ematea erabaki du. Bertso-paperetan, berriz, lehenengo eta bigarren sariak eman gabe gelditu dira. Herriko lan onenaren saria, aldiz, Ander Lizarralde Lizarralderen-

dako izan da, *Ugarteko Ike-rr*i izeneko bertsoengatik.

LAN GUTXI AURKEZTU DIRA

Udalak bosgarren aldiz antolatu ditu aurtun Oñati Hiria literatura sariak, eta lan gutxi aurkeztu dira.

Guztira hamar lan aurkeztu dituzte aurtengo literatura lehiaketara. Gai-nontzeko herri askotan bezala, Oñatin ere gero eta lan gutxiago aurkezten dira horrelako lehiaketetara. Kultura Sailak oraindik ez du erabaki sari lehiaketa horretarako erabiltzen duen dirua datorren urtean beste zerbaitetarako erabiliko duen edo ez. /O.E.

Zertzelada

Aurtengo literatura lehiaketara hamar lan bakarrik aurkeztu dituzte, eta epaimahaiak eman gabe utzi ditu sari batzuk

BERGARA

Etxez etxeko zerbitzuko langileek astebeteko greba iragarri dute

Gizaintza SL enpresarekin duten gatazka dela eta, etxez etxeko zerbitzuko langileek bi eguneko greba egin dute astean. Lan jarduna 21 ordu murriztea (urtean 1.728 ordu lan egitea), soldataren %6,6ko igotzea eta aldi baterako ezintasunak ordaintzea eskatzen dute. Bergaran 29 langilek dihardute etxez

etxeko zerbitzuan lanean. Enpresak beraien eskakizunei aurre egin ezear, ekainaren amaieran astebeteko grebari ekingo diotela adierazi dute. Udalak azpikontratututako zerbitzuari esker, herriko 99 etxetan eskaintzen da. Zerbitzua jasotzen dutenen batez besteko adina 79,2 urte da. /E.M.



Langileek txokolateta banatu eta sinadurak batu zituzten astelehenean.

ARETXABALET

Javier Madrazok 20 etxebizitza sozial zozketatuko ditu eguaztenean

Datorren eguaztenean, ekainaren 23an, 20 etxebizitza sozial zozketatuko ditu Eusko Jaurlaritzak Aretxabaletan. Kaminero-kua baserria dagoen lekuan, Tubos lantegi alboan egingo dituzte etxeok, nahiz eta oraindik ez diren hasi eraikitzen. Udaletxeko ganbaran, 12:00etan, izango da ekitaldia eta Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza eta Gizarte Gaietarako sailburu Javier Madrazok hartuko du parte. Guraso bakarreko familien, ezinduen eta 35 urtez azpiko gazteen artean egingo dituzte zotz 20 etxeok. /M.A.

ESKORIATZA

Aste Zapatistaren barruan ospatuko dute Aldarrikapen Jaia bihar

Bihar, Aste Zapatistaren barruan Txiapasen aldeko jaia egingo dute Eskoriatzan: Aldarrikapenerako Jaia; hain zuzen ere. Mexikoko herrialde hartako egoerari buruz informazio gehiago eman eta herritarrek sentsibilizatzea helburu izan duen astea astelehenean hasi eta domekan bukatuko da. Herri txikitxo eta bazkaria egingo dute; bazkalondoren ikuskizuna egongo da: malabarismoa, musika... Aldarrikapen kalejira egingo dute arratsaldean, eta amaitzeko, kontzertua egongo da gattetxean. /Z.V.M.

GATZAGA

Afari goxoarekin egingo diote ongietorria urteko gau motzenari

Datorren eguaztenean San Juan bezpera ospatuko dute Gatzagan. Hasteko, arratsaldeko zortziak aldera herriko plazan bilduko dira, eta antolatzaileek sardinak erreko dituzte parrillan. Arrainaz gainera, saiheskia ere jarriko dute erretzen. Gura duten guztiek har dezakete parte eguazteneko afarian.

Sabela bete ondoren, txondorrei su eman eta San Migel plazan sua piztuko dute. Hala sartuko dira urteko gau motzenez lagun giroan afaltzera animatzen direnak. /Z.V.M.

Gutunak

Koadrila komisinue

Arrasateko gazte koadriletan gauden partaideok aurten ez dugu San Juan jaiak alaitzeko ekintzarik prestatuko, azken hiru urteetan egin dugun bezala.

Azken hiru urteetan ekintzak antolatzen ibili garen pertsonak berdinak izan gara, eta indar gabe gaude beste urte bati aurre egiteko, ez baitu koadrilen arteko koordinazioa jaietan inork eraman nahi.

Jakinekua da jaietan ardurak izatea ez zaiola inori gustatzen, eta gutxiago juergan dabilenari.

Koadrilen komisinotik uste dugu nahiko baztertua izan dugula aurtengo San Juan jaien antolakuntza (arrazoi ezberdinak direla medio), ez baitzuen inork hartu nahi lehenago aipatutako ardura hori. Baina guk ere ez dugu jakin egoera horri aurre egiten, komunikabideetan zabalduz edo jendeari kalean horren berri eman eta talde berri bat bilatzen.

Aurten gertatutakoa berriz gerta ez dadin, nahi duten gazte taldeei laguntzeko prest gaude ondorengo urteetan.

ARRASATEKO KUADRILEN KOMISINUE
Arrasate

Bakardadean

Esan ohi da lagunak direla bizitzako gauzarik garrantzitsuena edo lagun bat altxor bat dela, baina esaldi horiek askotan erabili ditugun arren, noizbait gelditu gara pentsatzen zer izango zen gure bizitzaz gizartean baztertuak izango bagina edo lagunik izango ez bagenu?

Askotan bakardadearen sentimenduak jaten digu barrena, baina telefonoa hartu eta beste aldean lagun bat dugula konturatzean joaten zaigu bakardadearen lainoa gure mundutik; hori ez da bakardadea, hori bakarrik sentitzeko gogo da, ondoren benetako lagunak dituzula konturatzeke eta nolako zortea duzun zure buruari esateko.

Baina badaude benetan bakarrik dauden pertsonak; beregan inork ez duen erreparatzen pertsona bat, gauetan bere ohearen bakardade hotzean bere malkoak airera botatzen dituen pertsona bat, benetan bakarrik sentitzeko arrazioak dituen arima galdu bat da. Arima galdu bat izan arren berak ez du gizartea baztertu, gizarteak baztertu du bera.

Gizartea aipatzea oso erraza egiten zaigu gure burua garbitzeko modu erraz bat baita, batez ere zerbait gaizki egin dugula dakigunean. Askotan baztertu ditugu pertsonak ingurukoekin ondo geratzeko, ondo dakigu gure barrenean egia dela; hori jakin arren, ez gara konturatzen zer den pertsona baztertu izatea norbera berrero izateke biktima izatera heltzen den arte, orduan gogoratzen gara inongo arrazoirik gabe baztertu

ditugun pertsonen, egin diegun minaz eta gure barneko krudelkeria ezagutzera heltzen gara, nolako izaki nazkagarri eta azalekoak garen konturatzean ikusten dugu baztertuak izan diren pertsonak direla bizitzaren musu krudela ikusi duten pertsonak.

Noiz arte jarraitu behar dugu gizartearen izenean pertsonak baztertzeko, gure ondoko pertsonen bizitza jasanezin bilakatzen; noiz arte pertsonak izan beharrean makina diskriminatzaileak izaten...

O. PEÑAGARIKANO
Debagoiena

Nahikoa da

Nahikoa dela berriz ere esan beharrenean aurkitzen gara. Izan ere, jada 15 dira dispersioaren ondorioz hildakoak. Azkenekoa Leo Esteban Nieto, gaixotasun larri baten ondorioz hildako Esteban Esteban Nieto presoaren anaia.

1989. urtean, Puerto de Santa Maria-ko espetxetik Esteban ikustetik zetorrela istripua izan zuen eta horren ondorioz hanka moztu behar izan zioten. Baina ez zen hor amaitu Leoren sufrimendua; izan ere, ordutik hona, guztira, 21 ebakuntza jasan behar izan ditu, denbora honetan guztian min handiarekin, beti medikazioa hartzen. Baina dispersioari aurre eginez hor zegoen Leo; lehenengo bere anaia ikusteko izugarritzko bidaia gogor eta nekagarriak egiten, eta geroago, espetxeraturik dauden bere lagunak ikusteko, berriz ere bidaiatzen.

Gertaturikoari aurre eginez, hori egon da, kilometro pilo egiten bi estatutan zehar preso ditugun senide eta lagunak ikusi ahal izateko, betiere, duintasuna zer den erakutsiz. Baina nahikoa da. 15 urte beranduago izan arren, sakabanaketak bere biktima berria utzi digu. Argi eta garbi esan beharrean gaude heriotza honen arduradunek badituztela izenak eta beraiengana zuzentzen gara, behin harturiko erabakiarengan mediatu eta konponbideak har ditzaten.

Aurten, espetxeetarako bidean 24 istripu izan ditugu, bertan 69 senide eta lagun zaurituak suertatuz. Astero-astero, ehunka euskal herritarrok errepideetan zehar jarri behar dugu, une labur batez gure senide eta lagunak ikusteko. Astero izugarritzko gastu ekonomiko eta emozionalari aurre egin behar diogu, beraien irribarre goxo bat ikustearren, baina batez ere errepidean gure biziak arriskatu, eta beraiek kezkatu utziz gu etxeratu arte. Zer egin dugu hau merezi izateko? Preso ditugun senideak maitatu? Eta hau al da gure zigorra?

Izan ere, sakabanaketak senide eta lagun biziak arriskatzen ditu, sakabanaketa guretzat diseinaturiko zigorra delako, nahiz eta hasiera batean kolektiboarentzat pentsatua izan.

Euskal Herriak bizi duen gatazka politikoa konpondu dadin desiratzen gaude eta horretarako ezinbestekoa da Euskal presoak Euskal Herrira ekartzea, sakabanaketak sufrimendu nahikoa ekarri diolako Herri honi.

Bukatzeko, Leo eta Esteban gure irribarre goxoena eta benetako mirespena, eta beraien senideentzat elkartzunez eta maitasunez beteriko besarkadarik goxo eta beroena bidali nahi diegu Arrasateko txoko honetatik: euskal presoak Euskal Herrira!

ARRASATEKO ETXERAT
Arrasate

Dagokionari

Jakinarazi nahi dut hamabost eguneko epea ematen diodala maiatzaren 29 eta 30a arteko gauean, 04:30ean-edo, Arrasateko Zarugalde kalean, 52. zenbakiaren ondoan aparkatuta zegoen autoari talka egin zion gidariari.

Gidari horrek erantzuten ez badu, istripuaren lekukoak egon badaude eta goian aipatutako epean salaketa ipiniko dut Bergarako epaitegian. Badakigu autoa Seat zuri bat dela. Auto horren gidariak Arrasateko Udaltzaingora jo behar du eta bere datuak eman.

ARRASATEAR BAT
Arrasate

Errespetua

Errespetu faltari buruz Aramaioko alkateak joan zen asteko GOIENKARIAN idatzitakoarekin ez naiz bate-re harritu, zeren eta hori baita bere handitasunaren maila. Eskubide oinarrizkoak falta ditugun garai hauetan artista batek eginiko obrari beste artista batek bi letra jarri dizkiolako gure alkatea den Mertxe Mondragonek hau hartzen du herriari errespetu falta izugarritzat.

Egia esan, artelan hori margotzea ez zen izango ideiarik onena, baina errespetu falta adierazi digunez gure alkateak, nire iritziz errespetu falta handiagoak herriarengan zeintzuk diren esango diot adibide batzuekin.

- Herriak hautatutako zinegotziak ez errespetatzea eta horien zinegotzi lekuak lapurtzea, hori bai dela errespetu falta.
- Herriko Kultura etxea euria egiten duen bakoitzean goitik behera urez beteta edukitzea eguna joan eta eguna etorri, hori bai dela errespetu falta.
- Frontoia kristalaz apurtuta eta lurra zuloekin edukitzea, norbaitek min hartu arte, hori bai dela errespetu falta.
- Dirurik ez dagoela esan eta soldata ederra jartzea norberarentzat eta zine-

gotzientzat dietak hirukoiztea, hori bai dela errespetu falta.

5. Komisioak lanorduetan jartzea herritarrek zerbait nahi badute lana galdu beharra edukitzea, hori bai dela errespetu falta.

Jarraitu ahal izango nuke gauza gehiago jartzen, baina errespetuaren zentzuak beste alderdi batzuk dituela ikusteko nahikoa direla uste dut.

Bukatzeko, hasierako eskulturarekin segituz, ikusiko zenuen nola dagoen kokatuta, zeren eta kokatzeko orduan alboetan bi zulo eder utzi baitzioten eta parkean ibiltzen diren haurrak errekarra erortzeko arrisku bizi dute, eta oraindik ez dago konponduta. Baina hau seguru aski zuretzako alkate anderea ez da larria izango, bi letrak min handiagoa ematen dizute haur baten zartadak errekan baino.

Eta hau den-den hau errespetu guztiz esaten dizut. Aramaioko eskubide murriztutako herritar bat, baina errespetu guztiz alkate anderea, honek ez dizu asko axola.

AITOR AXPE AXPE
Aramaio

Udalekuak 25 urte

Goñiko Euskal Udalekuen 25. urteurrena aitzakiatzat hartuta, ospakizun jai bat antolatzea pentsatu dugu, Goñin ibilitako lagun guztiok bildu eta guztiok elkarrekin egun eder bat igortzeko; aspaldiko kontuei hautsak astindu eta etorkizunera begira jartzeko.

Jai irailaren 18an ospatuko da Goñin, eta bertan, bertsolariak, jokoak, kontzertuak, erakusketa, familia bazkaria... izango ditugu. Umeentzat ere egitarau berezia egongo da.

Bertara joan nahi duenak 20 euro (10 urtera arteko haurrek 10 euro) sartu behar du Kutzako 2101 0035 1501 2202 3484 (dorreako kultur elkarte) kontuan. Diru sarrerarekin batera jaira inguratuko den pertsonaren izen-abizenak eta kontakturako telefono bat jarri behar dira, eta tartean umerik bada, datu hori ere bertan zehaztu behar du. Diru sarrera egiteko uztailaren 15a izango da epemuga.

Jaialdi hau Goñin ospatuko denez, bertara joateko autobusak egongo dira. Edozein kezka izanez gero, 653 71 70 82 edo 661 32 64 77 telefono zenbakiak zuen eskura izango dituzue, arratsaldeko 17:00etatik 19:00etara. Nahiago baduzue goni@euskaludalekuak.org posta elektronikoa ere erantzungo ditugu zuen kezka.

Besterik gabe, animatu guztiok jaiaren parte hartzera; lagun zahar eta berriekin, Goñiren mende laurdena guztiok batera ospatu dezagun. Ez ahaztu ezagutzen dituzuen Goñikideak abisatzen!

GOÑIKO EUSKAL UDALEKUAK
Arrasate

Goienkaria
DEBAGOIENEKO ASTEKARIA

ZUZENDARIA
Eneko Azkarate

ERREDAKZIO KONTSEILUA
Edorta Mendieta,
Miguel Angel Elkorobereibar,
Josemari Velez de Mendizabal

ADMINISTRAZIOA
Agurtzane Gaintzarain,
Iratxe Bengoa, Arantzazu Arana

SAILETAKO ARDURADUNAK
Iñaki Iturbe (Diseinua)
Gotzon Arzelus (Publizitatea)

PUBLIZITATEA
Mireia Larrañaga, Natali Martínez,
Izaskun Bolinaga, Ziortza Martín,
Imanol Ertza, Amaia Mundifano

PRODUKZIOA
Iban Arantzabal

TESTUEN ZUZENKETA
Sergio Azkarate

HARPIDETZA ETA BANAKETA
Marta Leturia

Goiena
Komunikazio Zerbitzuak
LEHENDAKARIA
Estepan Plazaola
ZUZENDARI NAGUSIA
Iñazio Arregi

Joze Joan Gonzalez de Txabarri

GIPUZKOAKO DIPUTATU NAGUSIA

“Eredu deszentralizatuagoaren aldeko apustua egin dugu, Gipuzkoako bederatzi eskualde buruen eta hiriburuaren arteko loturak indartuta”

Gipuzkoako diputatu nagusia, Joze Joan Gonzalez de Txabarri, gurean izan da egunotan. Aspaldi geneukan hitzartuta harekin elkarrizketa, baina gaur arte ezin izan diogu egin, besteak beste, Debagoienera bertara etorri nahi zuelako, bide batez ibarreko komunikazio enpresa nagusia, Goiena, gertutik ikusi nahi zuelako. Horrenbestez, hona hemen harekin izandako elkarrizketaren nondik norakoak.

ENEKO AZKARATE

AP-1 autobideko Eskoriatza-Arlaban zatia dela eta, asko hitz egin da egunotan. Zela dago orain kontua?

Lanak orain dela aste bi adjudikatu ziren; hain zuzen, Ferrovial-Sobrino aldi baterako enpresa batasunari. 191.000 milioi eurotan adjudikatu dira, hau da, Gipuzkoako administrazio publiko batek inoiz egin duen adjudikaziorik nagusia da diru kopuruari dagokionez eta baita obraren kalitate estandarren ikuspegitik ere. 34 hilabete dituzte lanak amaitzeko.

Alegazioak direla-eta, hala ere, kezkatuta daude eskoriatzarrak.

Nahiz eta epez kanpo izan, kontuan hartu ditugu alegazioak, batez ere ikusi dugulako hainbat kasutan arrazoia dutela bai Eskoriatzako Udalak eta baita hainbat herritarrek ere. Eskoriatzako alkatearekin eta kaltetuen batzordeko kideekin egin

genuen batzarrean adostasun zabalera iritsi ginen. Lanak adjudikatuta egon arren, bai Eskoriatzako Udalarekin eta baita kaltetutakoen batzordearekin hartutako konpromisoak ere bete egingo ditugu. Kontu horretan sentsibilitate berezia erakutsi dugula uste dut. Esate baterako, Foru Aldundiaren interesen ikuspegitik hartzeko gogorrena izan den erabakia, hau da, ordainlekua Gipuzkoako zatian egon beharrean Araban jartzea, konpondu egin dugu. Hori ez da txikieria bat, eta horregatik, bere neurrian baloratzea nahiko nuke. Bestalde, gasolindegia ere hasierako proiektuan aurrez ikusita zegoen tokian ez dute kokatu, eta orain aztertzen dihardute kokagune berria zein izan daitekeen.

Arabako zein tokitan jarriko dute ordainlekua?

Arlabango tunelaren irteeran, Lukun. Hizkuntza zaharrean hitz eginda, Gipuzkoak bere arbitrio etxea ezabatu edo jan egiten du erabaki horrekin. Arabako Foru Aldundiarekin negoziatzen ibili gara eta konpentsazio moduak topatu ditugu.

Bergara iparra eta hegoa lortuko dituen autobide zatia noiz zabalduko da?

Zati hori ia amaituta dago, baina erakuntzakoak ia sei aste greban egon direla kontuan izanda, zabalteko epea atzeratu egingo da. Hala ere, espero dut ahalik eta agudoen zabalteza.

Beasain-Durango errepidea da debagoiendarroi zuzenean eragiten digun beste errepide lasterra. Errepide hori ez da ordainpekoa izango, baina Bergaratik Epelera arteko zatian bai, hor AP-1 autobidearekin egingo baitu bat.

Eztabaidagarria da ordainpekoa izan behar duen edo ez autobide horrek. Azken erabakia da doan izatea, baina nik zera planteatu nahi dut: zergatik Bergaratik Eibarrrera edo Arrasatera joateko ordaindu behar dugu autobidea eta, ostera, Bergaratik Zumarragara joateko ez? Uste dut gai horiek serio eztabaidatu behar direla Batzar Nagusietan, batez ere pasoko kamioilari

mordoa dagoelako ezer lagatzen ez dutenak eta, ostera, guk geure zergaz egindako azpiegiturak hondatzen dituztelako.

Lastertasun Handiko Trena da beste azpiegitura erraldoi bat Debagoiena zeharkatuko duena. Zer onura ekarriko dio horrek ibar honi?

Euskal Herriarendako guztiz beharrezkoa da azpiegitura hori. Batez ere, joan-etorri mota batzuetarako berebiziko garrantzia dauka. Debagoieneko interesen ikuspuntutik geltokiaren kokapenaren kontua izan liteke eztabaidagarria. Ze, hemengo industriaren eta negozioaren pisua ikusita, geltoki bat ahalik eta gertuen edukitzeak ezinbestekoa izan behar luke. Zumarragan? Ezkion? Debagoienan? Hori da eztabaidatzekoa.

Arrasateko saihesbide berria ere aurrera doa azkenean.

Bai, eta hori oso garrantzitsua da gure ustez, ze azpiegitura kontuetan Diputazioak lehentasuna eman dio Debagoienari. Ibar honetako alkateek behin eta berriro azaldu digute inbertsioetan hiriburuaren alde egiteko joera dagoela. Baina orain nekez eutsi ahal izango diote iritziz horri.

Garraio publikoaren kontua errepideen azpiegiturekin batera da Debagoienak duen gabezia nagusia. Plan berezirik badauka Foru Aldundiak gabezia horri erantzuteko?

Debagoieneko tranbia izango da irtenbidea eta Jaurlearitzak izan arren kontu horretan eskuduntzak, Aldundiak parte hartuko du azpiegitura hori lehenbailehen abian jar dadin.

Eta tranbia heldu bitartean, zer?

Aldundiak onartu du Debagoienan garraio publikoaren defizita dagoela, baina beste errealitate bat ere badago, ze autobus zerbitzua hobetu denean, jendeak ez du busik erabili. Debagoienan autoa erabiltzen du jendeak. Gipuzkoan, biztanleko auto gehien dagoen eskualdea Debagoiena da.

Bada uste bat, datuetan oinarrituta dagoena, eta da Debagoienak gehia-

BEASAIN-DURANGO DOAN?

“Eztabaidagarria da Beasain-Durango errepideak ordainpekoa izan behar duen edo ez, errepidea geure zergaz egin arren, pasoko kamioilari mordoa dagoelako ezer uzten ez dutenak”

GARRAIO PUBLIKOAK

“Autobus zerbitzua hobetu denean jendeak ez du autobusa erabili. Debagoienan autoa erabiltzen du jendeak. Gipuzkoan, biztanleko auto gehien dagoen eskualdea Debagoiena da”

LURRALDEAREN OREKA

“Ezin dezakegu bihurtu probintzia guztia lanerako basamortu, bigarren mailako bizi kalitatearekin eta hiriburu edo kostaldea punta-puntako Monako bat”

EUSKALGINTZA

“Burua, bihotza eta batez ere ahoa berotzen zaigu sarri, baina gero... Euskalgintzak duen kate begi ahulena horixe da, zalantza barik: inkoherentzia”





XABIER URZELAI

go ematen diola Foru Aldundiari hark Debagoienari ematen dioena baino. Zer deritzozu?

Bai, diagnostiko horrek egiaren zati bati erantzuten dio eta, horregatik, neurri zuzentzaile nabarmenak hartu ditugu, hartzen ari gara eta hartuko ditugu etorkizunean. Oso industria indartsuak, kooperatibak eta, daudelako ibar honetan.

Antzuolako duzu emaztea, eta sarri etortzen zara Antzuolara. Sentsibilitate berezia dauka ahaldun nagusi honek Debagoienarekiko?

Gertatzen da oso sentsibilizatuta gaudela Gipuzkoako lurralde osoaren orekarakin. Ezin dezakegu bihurtu probintzia guztia lanerako basamortu, bigarren mailako bizi kalitatearekin eta hiriburua edo kostalde punta-puntako Monako bat. Guk lurralde orekatuagoa egin nahi dugu, eredu deszentralizatuagoaren aldeko apustua egin dugu, bederatzi eskualde buruen eta hiriburuaren arteko loturak indartuta. Eta, planteamendu horretan nabarmen huts egiten duena garraio publikoa da, hori onartu egiten dugu.

Garraio publikoa, hainbat kultura edo kirol ekipamendu, zerbitzuak...

Azpiegituren alorrean inoiz aipatzen ez dena baina guretako oso garrantzitsuena dena da gizarte kontuetako ekipamendua. Horretan Foru Aldundiak urtero 160 milioi euro bideratzen ditu eta hemen ere egingo dugu zerbitzuen banaketa orekatu bat eskualde buruetara. Uste dut Gipuzkoak lortu beharko lukeela izatea epe laburrean euskal hirien hiri euskaldunena.

Eta hori lortzeko euskararen alde egiten diren ekimenek dute garrantzia. Ze eragin izan dezakete gure ibarreko euskarazko hedabideek egiten dutena?

Nahiko nuke batez ere euskaraz biziko litzatekeen gizarte batean bizi. Gure premisa nagusia hori da. Helburu horretara iristeko ardatz garrantzitsua da hedabideena, eta horiek herritik zenbat eta gertua-


go egon, hobeto. Hala ere, euskalgintzan gauza batek atentzioa ematen badu nabarmen, hori da inkoherentzia. *Egunkaria*-ren aldeko manifestazioan joan ginen erdiak *Berria* erosiko bagenu, *Berria*-k akziodunak edukiko lituzke, irabaziak emango lituzkeelako. Burua, bihotza eta batez ere ahoa berotzen zaigu sarri, baina gero... Euskalgintzak duen kate begi ahulena horixe da, zalantza barik: inkoherentzia. Eta kate begi ahul hori indartzeko Goiena bezalako herrian herriko hedabideak aukera paregabeak dira. Baina uste dut asmatu behar dutela euskal komunitateari kalitateko zerbitzuak ematen eta horretaz gain pluraltasun ideologiko politikoari erantzungo dien komunikabideak egin.

Zaborrarena da daukagun arazotako bat: asko sortzen delako eta gero erre edo nora ere ez dakigulako. Zertan da errauskailuaren kontua?

Kontzientzia arazoa ere bada hemen. Uste dugu zaborra etxetik kalera eramateaz bat edo zaborrontzietan uzteaz bat, arazoa bukatu egiten dela eta magiaz edo zaborra desagertu egiten dela. Baina, ez. Zaborra norabait eroaten dute eta gero tratatu egin behar da. Bere garaian zabortegien aldeko apustua egin zen, baina politika horrek goia jo du eta Europatik datozen aginduak bete nahi baditugu alternatibak topatu behar ditugu eta horietako bat da erraustegiarena. Horren aldeko apustu garbia egin dugu. Ze birziklapen kanpaina ugari egin arren, praktikan, gero, %80 erretzeko geratzen da.

Horren aurka dago, baina, jende asko.

Bai, baina, Alemanian berdeek bultzatzen duten alternatiba da, edo Bartzelonako Forum delako horren erdi-erdian, Bartzelonako gune urbanistiko garestiegan, dago erraustegi bat kokatuta, edo Parisen erdigunean lau daude. Harako balio badute, honako ez? Laster jakingo dugu Gipuzkoan izango diren bi errauskailuetako bat non kokatuko den.



XABIER URZELAI

“Gipuzkoak bere osoan hiri baten itxura hartu behar du”

Gipuzkoako Foru Aldundia Debagoienarekiko aspaldi zeukan defizita konpontzen hasi dela esan dezakegu?

Guk nabafirmendu nahi izan dugu ez gatzela bat orain arte egin den Gipuzkoako diseinuarekin, non Gipuzkoako hegoan lan egiten den eta bizi eta gozatu, ostera, Donostia inguruan eta kostan. Oraingo Foru Aldundiak diseinu horre-

kin apurtu egin nahi du, uste dugulako Gipuzkoak bere osoan hiri baten itxura hartu behar duela eta hiri horretan zerbitzuak eta azpiegiturak modu egokiagoan banatu behar direla. Ikuspegi horretatik, Arrasaten Musakolako edo Bergaran Agorrosingo kirol-guneak diruz laguntzera goaz eta egiten diharduten Garaia ikerketa-gunea eta MU ere bultzatu nahi ditugu.

Azpiegituz aparte, gizarte kontuei lehentasuna eman nahi izan die Foru Aldundiak. Zergatik?

Ahalegin berezia egin dugu hor, ze esango nuke horixe dela Diputazioaren aurpegi ezezagunena. Hirugarren adinekoekin, umeekin, gaixoekin, ezinduekin... egiten diren politikatan aitzindari gara Gipuzkoan, eta programa horiei babes berezia eskaini nahi diegu.

Quebrantahuesos lasterketa, bihar

Ibarreko 105 ziklistak eman dute aurrez izena; bihar ere horretarako aukera izango da

XABIER URZELAI

Iritsi da eguna, hainbat hilabetez jo eta ke entrenatzen ibili eta gero, ibarreko ehun lagun baino gehiagok bihar egingo diote aurre Estatu mailan dagoen ziklismo proba gogorrenetako bati: Quebrantahuesos proba, hain zuzen. Izen hori ondo baino hobeto datorkio.

Sabiñanigon (Pirinioak) hasiko da bihar, 08:00etan, aurtengo Quebrantahuesos proba, eta lehenengo helmugaratuko denak gutxienez zazpi ordu beharko ditu bizikleta probako 205 kilometroak betetzeko.

Antolatzaileen esanetan, dagoeneko 4.900 lagunek eman dute proban izena, eta horietako 105 ibarreko txirrindulariak dira. Hala ere, lasterketa hasi baino lehenago izena emateko aukera izango da, eta askok azken aukera hori aprobetxatuko dute proban esku hartzeko.

PROBA GOGORRA

Quebrantahuesos proba ez da txantxetarako kontua. Ibilbide luzea izateaz gain, ziklistek hiru portu izango dituzte, eta gainera,



GOIENKARIA

Tenperatura altuez gain, proban parte hartuko duten ziklistek publikoaren berotasuna ere igarriko dute.

egingo duen beroak ez du batere lagunduko. Proba hasi eta lehenengo kilometroak lasaia dira; Jacaraino bai, behintzat. Jacatik Candanchu eski estaziorako bidea hartuko dute, eta hori izango da lehenengo proba gogorra: Som-

port-eraino igotzea, hain zuzen. Lehenengo portua atzean utzita Escot-eraino jaitsiko dira, eta hor hasiko da bigarren portua, Col Marie Blaque-n amaituko dena.

Eta kilometro mordoa eginak izango dituztenean egin

beharko diote aurre igoera gogorrenari, Portalet-eko portuari. Handik proba amaiera arte 50 kilometro izango dituzte egiteko, baina ez dira gogorrak. Ibarrekoen sailkapena, *Asteleheneko Goienkaria*-n.

Kirolabur

FUTBOLA

Agustin Arantzabalek Zaragoza taldearekin fitxatu berri du, eta Real eta Zaragoza ez datoz bat Zaragozak ordaindu behar duen diru kopuruarekin. Realak milioi bat euro eskatzen ditu, eta horietako 100.000 euro Bergara Kirol Elkartearendako dira. Zaragozak, berriz, ez du uste ezer ordaindu behar duenik. Badirudi kontu horrek luze joko duela.

PLATER TIROKETA

Eskeziatzen plater tiroketa txapelketa jokatu dute bihar, zapatua. Parte hartzeko derrigorrezkoa da eskeziatza edo Aldaie elkarteko bazkide izatea. Txapelketan esku hartu ahal izateko, 10 euro ordaindu behar dira.

SKATE JAIA

Patxi Matxin skate jaia egingo dute bihar Arrasateko Zaldirar pilotalekuan.

Jaia 11:00etan hasiko da, eta bi gune jarriko dituzte skatean ibiltzeko: Street gunea eta Miniramp gunea. 15:00etan, berriz, grafiti erakusketa egingo dute, eta 18:00etatik 21:00etara kontzertuak izango dira. Jaia amaitzeko, DJ Haitz ibiliko da musika jartzen.



ALMACENES ARRASATE

FAGOR eta ASPES etxetresna elektrikoetan sekulako eskaintzak!
Orain erosi, eta ordaindu sei hilabetean interes barik.



BERME
2
URTE

1.460
X
550
X
590 mm

HOZKAILUA 1FA255

265 €44.092 pta ASPES



BERME
2
URTE

1.850
X
598
X
590 mm

HOZKAILUA COMBI 1FAC495

359 €59.733 pta ASPES



BERME
2
URTE

800 b/min
5 kgr.

GARBIGAILUA LA383

295 €49.084 pta ASPES



BERME
2
URTE

1.000 b/min
6 kgr.

GARBIGAILUA LA4163

345 €57.403 pta ASPES



BERME
2
URTE

LABEA
H21410 BN
BITROZERAMIKA
VAP1400

LABEA eta BITROZERAMIKA

345 €57.403 pta ASPES



%10eko
deskontua
Renove
Planarekin

NO FROST

1.850
X
600
X
600 mm

BERME
5
URTE

HOZKAILUA COMBI F7017

669 €111.312 pta FAGOR



%10eko
deskontua
Renove
Planarekin

1.850
X
600
X
600 mm

BERME
5
URTE

HOZKAILUA COMBI F7007D

649 €107.985 pta FAGOR




%10eko
deskontua
Renove
Planarekin

BERME
5
URTE

1.100 b/min
6 kgr.

GARBIGAILUA L7110D

529 €88.018 pta FAGOR



BERME
5
URTE

AIRE EGOKITUA
HOTZA ETA BEROA

290 €48.252 pta FAGOR



TELEBISTA SANYO

CE-25FV21 25" 299 € 49.749 pta.
CE-28FV21 28" 309 € 51.413 pta.

Biltegiko prezioak. Deskontu handiak. Kooperatibistendako prezio bereziak.

Sukalde altzariak: proiektua eta aurrekontua DOAN. Konpromiso barik.
Zatoz eta ezagut gaitzazu. Kataide poligonoan 3, Roneo ondoan.

UDAKO PREZIORIK ONENAK... **ORAIN!!!**

MALLORCA

8 egun / 7 gau ME

250 eurotik aurrera

TENERIFE

8 egun / 7 gau ME

290 eurotik aurrera

PUNTA CANA

9 egun / 7 gau GB

750 eurotik aurrera

RIVIERA MAYA

9 egun / 7 gau GB

900 eurotik aurrera

BALEARRAK ETA KANARIAK 8 egun / 7 gau

		UZT.	ABUZ.	IRAILA
MALLORCA				
GRAN MALLORCA H. ***	ME	285	285	285
SOL ANTILLAS / BARBADOS H. ****	ME	563	661	549
ACORN SUMBA / BORNEO H. ****	GB	675	677	627
MENORCA				
BINIBECA CLUB APTU. 3LL	OB	415	415	307
ALMIRANTE FARRAGUT H. ***	ME	516	622	444
SOL MILANOS / PINGÜINOS H. ***	ME	530	743	509
IBIZA				
PISCIS PARK H. **	ME	363	443	347
FIESTA SAN DIEGO H. ***	ME	469	464	358
SOL IBIZA H. ****	ME	631	770	599
TENERIFE - PUERTO DE LA CRUZ				
PEZ AZUL APTU. 3LL	ME	323	345	325
BONANZA PALACE H. ****	ME	385	449	385
MARQUESA / CONDESA H. ***	ME	411	436	410
CATALONIA PUNTA DEL REY H. ****	GB	516	576	512
TENERIFE - HEGOALDEA				
FIESTA OASIS PARAISO H. ***	ME	335	355	335
H10 LAS PALMERAS H. ****	ME	434	552	495
MELIA JARDINES DEL TEIDE H. ****	GB	604	697	689
LANZAROTE				
ROCAS BLANCAS APTU. 2LL	OB	367	325	362
HOTETUR AQUARIUS APTU. 3LL	ME	518	454	435
PARADISE ISLAND APTU. ***	GB	568	611	607
LA PALMA				
CENTRO CANCAJOS APTU. 3LL	OB	284	284	284
MARITIMO H. ***	ME	400	450	424
FUERTEVENTURA				
SUITE HOTEL PUERTA DEL SOL 2LL	ME	325	355	325
HOTETUR OASIS TROPICAL APTU. 2LL	OB	350	371	347
TOFIO H. ***	ME	354	404	354

KARIBEA

9 egun / 7 gau

		UZT.	ABUZ.	IRAILA
DOMINIKAR ERREPUBLIKA - PUNTA CANA				
BARCELO BAVARO VILLAGE H. ****	GB	700	785	725
FIESTA BEACH H. ****	GB	750	750	750
GRAN PARADISE BEACH H. ****	GB	725	860	800
RIU MELAO H. ****	GB	767	850	815
NATURA PARK ECO-RESORT & SPA H. ****	GB	845	860	850
IBEROSTAR DOMINICANA H. LUXUKOA	GB	893	963	914
MEXIKO - RIVIERA MAYA				
CLUB MAEVA H. ****	GB	900	900	900
RIU TEQUILA H. ****	GB	1.000	1.070	1.000
OCC GRAN FLAMENCO XCARET H. ****	GB	1.059	1.070	1.070
RIU PLAYACAR H. ****	GB	1.063	1.074	1.054
COLONIAL PALLADIUM GR & SPA H. ****	GB	1.093	1.137	1.093
PARADISUS RIVIERA CANCÚN H. ****	GB	1.252	1.196	1.196
MEXIKO - CANCÚN				
RIU CANCÚN H. ****	GB	1.038	1.050	1.030
MELIA TURQUESA H. ****	GB	1.079	1.050	1.050
KUBA - HABANA				
GRAN CARIBE TRITÓN H. ****	HG	700	820	712
BLAU HORIZONTES ARENAL CLUB H. ****	GB	838	942	850
TRYP HABANA LIBRE H. ****	HG	895	950	907
NACIONAL DE CUBA H. ****	HG	1.034	1.089	1.045
KUBA - VARADERO				
GRAN CARIBE KAWAMA H. ****	GB	891	945	902
HTL/BUNG. SOL PALMERAS****	GB	1.013	1.068	1.024
MELIA VARADERO H. ****	GB	1.110	1.165	1.122
KUBA - HABANA - VARADERO				
(3 GAU HABANAN ETA 4 GAU VARADERON)				
GRAN CARIBE TRITON / VILLAS KAWAMA H.****HG/GB		819	901	830
TRYP HABANA LIBRE / H. ELITE PALMERA H.****HG/GB		972	1.027	984
NACIONAL / H. MELIA VARADERO H.**** HG/GB		1.087	1.142	1.099

Zure oporregatik egin dezakegun guztia egin egiten dugu

VIAJES IBERIA

Pr€zioa eta askoz gehiago...

400 bulego baino gehiago zure zerbitzura

Irteerak
BILBOTIK

902 108 108
viajesiberia.com

Irteerak Bilbotik, Kariberakoak izan ezik (hauek Madrildik). Prezioak pertsonako logela bikoitzean eta aurretik aipatutako erregimenean, aurrez esandako egun konkretuentzat bakarrik. Aireko tarifikazioa, tasak, bida eta gestio datuak ez daude barne. Janari-erregimena: OB: Ostiatua Bakarrik; ME: Mantenu Erdie; HG: Hotela eta gosaria; GB: Guztia Barne. **ESERLEKU MUGATUAK.**



SUKALDEAK: Udala Plaza z/g, Arrasate / 943 79 00 43
BAINUAK: Zarugalde 52, Arrasate / 943 79 99 42
ETA ORAIN OÑATIN: San Lorentzo 1 / 943 53 35 48

iKER

%20 DESKONTUA
SUKALDE ALTZARIETAN

FAGOR 

 **UGARTE**

**GURE INDUSTRIA ETA SEGURTASUN
 KATALOGOEN IRUDI BERRIA**

SEGURTASUNEZ,
INDUSTRIA-HORNIDURAN NAGUSI

Suministros Ugarte, S.L. • San Andrés Auzoa, 2 • 20500 Arrasate-Mondragón (Gipuzkoa)
 Telf: 943 71 21 41 • Fax: 943 71 21 40 • www.suministrosugarte.com



JAIIAK

Egubakoitza / 2004 ko ekainaren 18a / SAN JUANAK ARRASATEN 2004 / GOIENKARIAren gehigarri berezia



SAN JUANAK ARRASATEN

AZALA: IMANOL SORIANO / JATORRIZKO ARGAZKIA: ANDER GILLENEA

SPORT

Key

poltsiko guztietan egongo den giltza

JMA

www.jma.es

gora San Juan!



Giltzaren kopia egiterakoan eska itzazu zure ohiko saltokian.

■ MUSIKA SAN JUANETAN

Hamaika musika saio, lau antolatzailearen eskutik

LEIRE KORTABARRIA

Denotariko musikaz gozatzeko aukera izango da aurtentzen: Udalak, gaztetxeko taldeek eta txosnetako arduradunek, tabernari batzuek eta Arraska taldeak, nork bere aldetik egitarau propioa antolatu dute, eta musika estilo askotariko emanaldiak izango dira aukeran jaietan.

Udalak, gaztetxeko eragileek eta txosna batzordeak eta herriko zazpi tabernarik hainbat kontzertu antolatu dituzte. Horrez gain, Arraska skate taldeak jaialdia antolatu du biharko, zapatua, Zaldibarren, eta hiru musikariren emanaldia izango da, tartean. Inoiz, antolatzaile bakoitzak bere egitaraua prestatzeak dakar bi kontzertu egun eta ordu berean izatea, eta horixe gertatuko da aurtentzen: hilaren 26an, Ruper Ordorikaren kontzertua, batetik, eta Anger eta Kuraia taldeena, bestetik, 22:30ean izango dira. Antza denez, Udalak eta gaztetxeak ez dute adostasunik lortu.

Kontuak kontu, inoiz baino musika estilo gehiago izango dira aurtentzen jaietan: musika lasaia, herrikoia, rock musika (askotan, Arrasateko taldeen eskutik), tangoak eta milongak, flamenkoa, dantzarako doinuak...



JUAN ARTZAMENDI OMENDUKO DU BANDAK SAN JUAN EGUNEAN

Arrasate Musikaleko Bandaren San Juan eguneko kontzertuak sekula ez du hutsik egiten, eta mondragoetarrak gustura joaten dira urtero hori entzutea. Aurtentzen, gainera, herriko gaitarien 25. urtemuga dela-eta, talde horrek protagonismo berezia izango du, hiru pieza joaz, eta euskal dantza taldeek eta erraldoiek dantza egingo dute. Kontzertua orain gutxi zendu zen Juan Artzamendi musikari arrasatearraren omenezkoa izango da. Monterronen izango da, egunean, hilak 24, 13:00etan. Estilo denotariko piezak joko ditu musika bandak: jakina, Arrasateri eta San Juani eskainitako piezak, baina baita nazioarteko konposatzaileen doinuak, filmen soinu-bandak... Ekitaldi nagusi horrez gain, Arrasate Musikaleko Bandak kalejira ere egingo du.

Thee Tee's, The Ruders eta Unai Azkaratek bihar arratsaldean joko dute Zaldibarren

Doinu lasaia dira nagusi Udalaren eskaintzan: tangoak, Banda, Ruper Ordorika...

Txosna-gunean, Kuraia eta Anger taldeek joko dute hilaren 26an, besteak beste

Herriko zazpi tabernatan rock kontzertuak izango dira, arratsalde partean



DOINU LASAIK, TANGOA, DISKO FESTA...

Lasai-lasai entzuteko moduko musika, baina baita dantzarako doinuak ere: horiek biak uztartzen ditu Udalaren egitarauak. Emanaldi gehienak hilaren 25ean eta 26an izango dira, egubakoitza eta zapatua. Egubakoitzean, Al Badulaque taldeak *Malaje* ikuskizuna eskainiko du Monterronen, musika flamenkoa protagonista dela. Egun berean, Herriko Plazan, Euskadi Gaztearen disko festarekin nahikoa dantza egiteko parada izango dugu. Zapatuan, Trio Chamuyo taldeak —aretxabaletar batek eta bi argentinarrek osatua— tangoak eta milongak joko ditu, eta Ruper Ordorika ofñatiarraren emanaldiak borobilduko du eguna.



ROCK EMANALDIK ZENBAIT TABERNATAN

Orain dela urte batzuetatik hona, herriko zenbait tabernak bat egitea adostu zuten musika eskaintza aberasteko. Euren ustez, San Juanak gainbeheran zeuden, eta horri konponbidea emateko, ordudanik urtero musika emanaldiak antolatzen dituzte. Honakoak baieztatu dituzte: hilaren 25ean, 18:00etan, Biona tabernan Ozen taldeak joko du, eta Ekaitzen, Los Cretinos eta Los chicos Boom taldeek. Eta 26an, Irati tabernan Brigada Criminal taldeak egingo du emanaldia, ordu berean. Iluntz, Iturri, Basati eta Jai-Zale tabernetan ere izango da rock doinuak entzuteko modua. Tabernariek nahi izaten dute saioak ezuste moduan prestatzea.



TXOSNA-GUNEAN, ROCK DOINUAK

Inguruko taldeen rock doinuek giroa dute txosna gunea San Juanetan. Gaztetxeko eragileek eta txosna batzordeak antolatu dituzte emanaldiak. San Juan bezperan, eguazte-nean, Arrasateko hainbat taldek eskainiko dute kontzertua, 22:30ean; San Juan egunean, eguna, Nekin taldeak joko du, 01:30ean, eta euskal kanten bertsioak eskainiko ditu. Eta zapatuan, ekainak 26, Kuraia eta Anger taldeen kontzertua izango da, guztiok txosna gunean. Aire zabaleko beste emanaldi bat izango da biharko, zapatua, Arraska taldeak antolatuta: Zaldibarko frontoian, Thee Tee's, The Ruders eta Unai Azkarateren emanaldia izango da, 18:00etan.

■ ARRASATEKO GAITARIAK: 25 URTE LANEAN

25. urteurrena dutela-eta, gaitariak omenduko dituzte

LEIRE KORTABARRIA

Arrasateko Gaitariak aski ezagunak dira herrian, eta jaietako ezinbesteko parte-hartzaile dira gaur egun. Izan ere, San Juanak giroten 25 urte eman dituzte, urterik urte animua galdu gabe. Arrasatek dedikazio eta leialtasun hori eskertu gura ditu aurtan. Hori dela-eta, gaitarioi omenaldia egingo die Udalak.

San Juan jaiak pentsaezinekoak lirateke gaitarien doinu alairik gabe. Arrasatear gazteenek ez dute gaitaren musikarik gabeko San Juan jairik bizi izan; izan ere, Arrasateko gaitariak 25 urte darमतate nekaezin euren jardunean. Mondragoeko herriak betidanik estimatu izan du gaitarion lana, baina aurtan, mende laurdena egin dutela-eta lanean, herriak omenaldia egingo die. Hain zuzen ere, Aitortzeko Ekitaldia egingo die Udalak ekainaren 27an, domeka, 13:30ean, udaltxeko osoko bilkuren aretoan. SUDC herriko elkarten bilgunea ere omenduko dute ekitaldi horretan.

Omenaldia bera alde batera utzita, bi musika ekitalditan izango dira gaitariak protagonista. Batetik, San Juan egunean, kontzertua eskainiko dute Arrasate Musikaleko Bandarekin, erraldioen konpartarekin eta dantzari taldeekin. Emanaldia 13:00etan izango da, Monterronen, eta hiru pieza joko dituzte: *Aitziber eta Jon* izeneko baltsea (erraldioiek dantza egingo dute hor), jota bat (Lore Gazteak eta Arrostitz Mondragoeko euskal dantza taldeek lagun egingo die) eta gaitariak eurek bakarrik joko duten hirugarren pieza bat,

Omenaldia jasoko dute herriko gaitariak Udalaren izenean, ekainaren 27an

San Juanean kontzertuan joko dute, Arrasate Musikaleko Bandarekin

Erraldioen bilkuran Arrasateko eta kanpoko erraldoi eta gaitariak esku hartuko dute



ARRASATE PRESS

Arrasateko Gaitariak 25 urtean alaitu dituzte San Juanak; aurtan, herriak lan hori eskertuko die.

erakustaldi moduan. Baltsea bariazioekin izango da, eta pieza zailagoa da hori.

Kontzertua Juan Artzamendi musikari zenaren oroimenez izango da.

ERRALDIOEN BILKURA

Gaitarien omenezko bigarren ekitaldia ekainaren 27an izango da, domeka. Egun horretan, Euskal Herriko erraldoi eta gaitari talde onenatariko batzuk —Arrasatekoak barne— bilduko dira herrian, eta goiz parte alaituko dute. Hain zuzen, Basurto, Iruñea eta Arrasateko erraldoi eta kili-konpartsek eta Tuteran, Iruñea, Burlata, Bilbo, Gasteiz, Elgoibar,

tekoak barne— bilduko dira herrian, eta goiz parte alaituko dute. Hain zuzen, Basurto, Iruñea eta Arrasateko erraldoi eta kili-konpartsek eta Tuteran, Iruñea, Burlata, Bilbo, Gasteiz, Elgoibar,

Eltziego, San Jorge, Txantrea eta Arrasateko gaitari taldeek musika eta kolorezko kalejira egingo dute lehenengo, Zaldibartik hasita, 11:30ean; herriko alde zaharretik pasatuko dira, hainbat geldione egin eta dantzak eskaintzeko; eta kalejira Herriko Plazan bukatuko da, eguerdi partean.

Erraldioen bilkura Arrasateko gaitariak antolatu dute, Udalaren, SUDC herriko elkarten federazioaren eta Txalaparta elkartearen laguntzarekin.

GAITARIEN IBILBIDEA

Arrasateko gaitariak 25 urte darमतate lanean. Enrike eta Esteban Dolara anaiak eta Jose Angel Lazkano hasi ziren; gero, Ramon Barrutiak bat egin zuen. Sei lagunek osatzen dute taldea gaur egun: Eduardo Abarrategik, Enrike eta Esteban Dolarak, Lander Lorentzok, Iñaki Barrenak eta Jose Ramon Perezek.

Gaitari taldeak ez dira hain ohikoak Euskal Herrian, batez ere, herri txikietan. Hori dela-eta, Arrasateko gaitariak ezinbesteko bihurtu dira herriko ospakizun guztietan. Ospea ondo irabazita dute Mondragoen, hortaz, baina baita kanpoan ere. Sarritan deitu izan die beste herri batzuetako jaiak girotzeko.

Urteak joan ahala, gaitariak lehenengo umore onarekin jarraitzen dute lanean, baina orain badituzte beste ardura batzuk eguneroko bizitzan. “Lehen askoz ere gehiago irteten ginen. Edozelan ere, orain Gasteizera joaten gara, *Blanketan*; Iruñera, San Ferminetan; Urretxura...”, azaltzen du Enrike Dolarak. Jaietan ibiltzeaz gain, Arrasate Musikalaren eskolak emango dituzte las-ter. Eta herriko jaietan jotzeaz ere ez dira aspertu.



ARRASATE PRESS

Ekitaldi nagusietako bat izango da erraldioen bilkura.



ARRASATE PRESS

Gaitariak eta erraldoiak elkarrekin irteten dira kalejiran.



ANDER GILLENIA

Hiru erraldoi konpartsa bilduko dira hilaren 27eko ekitaldian.

JAIETAKO E

Egubakoitza, 18

18:30 Seber Altuben GIMNASIA ERRITMIKOAREN ERAKUSTALDIA.

Zapatua, 19

Egunean zehar Zaldibarren Arraska Taldearen Patxi Matxin II. SKATE JAIA.
11:00 Skate-gunea zabalik.
15:00 Grafiti erakustaldia.
18:00 Kontzertua: Thee The's eta The Ruders.
19:00 HAURREN DANBORRADA Arrasate Musikaleko Musika Bandarekin. Ibilbidea honako hau izango da: Nafarroa etorbidea, Garibai etorbidea, Maala, Erdiko kalea eta Herriko Plaza. SUDC elkararte antolatzen du danborrada.
22:00 Monterronen BERTSO SAIOA.

Bertsolariak: Jokin Labaien, Manex Agirre, Iratxe Ibarra, Jon Maia, Unai Iturriaga eta Mañukorta. AEDK antolatuta.

Domeka, 20

10:30 Nafarroa etorbidean elkartuko dira haur dantzarien taldeak.
11:45 Kalez kale dantzarien saioak.
16:30 Mondragon Hotelean, MUS txapelketa.
17:00 Herriko Plazan dantza taldeen jarduna. Ondoren DANTZALDIA. Lore Gazteak eta Txikitxu-Arrostaiz dantza taldeek antolatuta.

Eguaztena, 23

15:30 Arrasateko TXISTULARIEKIN DIANA.

16:00 Herriko Plazan ETXAFUEGOAK eta BONBA JAPONIARRAK.
17:00 Herriko Plazan Duo en la Lona taldeak *Circo Discolo: Munduko zirkorik txikiena* IKUSKIZUNA egingo du.
19:00 Seber Altuben ADIERAZPEN SENSUALEN ERAKUSKETA Sexologia Zerbitzuak antolatuta.
19:30 San Juan parrokian, SALVE SOLEMNEA.
21:30 Maala kaletik Herriko Plazaraino ERREMENTARI DANTZA.
22:30 SAN JUAN SUA Herriko Plazan.
22:30 Nafarroa etorbidean irten eta herriko kaleetan, NAGUSIEN DANBORRADA. Ibilbidea: Nafarroa etorbidea, Laubide plaza, Garibai etorbidea, Maala, Erdiko kalea eta Herriko

Plaza. SUDCek antolatuta.

Jarraian Herriko Plazan, Gaubela taldearekin DANTZALDIA.

Eguena, 24

08:30 DIANA ARRASATEKO GAITARIEKIN.
09:00 ENTZIERROA: Ferrerías-Erdiko kalea-Iturbide-Laubide plaza. Gero, bigantxak izango dira zezen-plazan.
11:00 San Juan parrokian MEZA NAGUSIA.
11:00 ARRASATEKO ERRALDOI eta KILIKIEN KONPARTSAREN irteera.
11:30 Arrasate Musikaleko MUSIKA BANDAREKIN KALEJIRA.
12:00 Herriko Plazan Ohorezko Aureskua eta San Juan

Zortzikoa dantzatzeko dituzte.

12:30 Abaroan 80 URTETIK GORAKO NAGUSIEN OMENALDIA.

13:00 Monterronen KONTZERTUA Arrasate Musikaleko MUSIKA BANDAREN eskutik.

Egitaraua:
Gure Zaindaria
M. Gonzalez Bastida.
Aitziber eta Jon
T. Muxika.
Vals con variaciones
J. Romano.
Jota
M. Turrillas.
Los Siete Magnificos
E. Bernstein.
Star Wars
J. Williams.
See You later alligator
R. Guidry.



SKATE JAIA

Arraska taldeak Patxi Matxin II. Skate Jaia antolatu du. Goizean hasi eta egun guztian barrena: skate erakustaldia, grafitiak, kontzertua...

Non: Zaldibar
Noiz: zapatua, 19 / 11:00etan hasita



HAURREN DANBORRADA

Danbor hotsen burrunbadak hartuko ditu Arrasateko kaleak. Nafarroa etorbidean hasi eta Herriko Plazan amaituko da.

Non: kalea
Noiz: zapatua, 19 / 19:00



BERTSO SAIOA

Ibarreko eta besteko bertsolariekin jaialdia antolatu du AEDK. Jokin Labaien, Manex Agirre, Iratxe Ibarra, Jon Maia, Unai Iturriaga eta Mañukorta.

Non: Monterron
Noiz: zapatua, 19 / 22:00



ERREMENTARI DANTZA

Hamaikagarren urtea izango da aurtentzen. Muru mendiko herensugearen eta errementarien kondaira gogoratuko dute beste behin ikuskizun horrekin.

Non: Maalatik plazaraino
Noiz: eguaztena, 23 / 21:30

orain
Debagoiena
esku-eskura

Goiena.net
Debagoieneko ataria Interneten

herriko albisteak sarean • eztabaidak • agenda • ...

GITARRAUA

Gora Arrasate
Juan Artzamendi.

San Juan Ereserkia

J. Artzamendik moldatua

18:30 HAUR ANTZERKIA Gorringo taldearekin: *Munduko arrautzarik handiena.*

19:00 Kalejira ARRASATEKO GAITARIEKIN.

19:30 Haurrendako jaialdia zezen-plazan, zezentxoekin eta *poney*-ekin, Incansables txarangak girotuta.

21:00 Herriko Plazan DRAGOI JANA.

Han erretako dragoia hantxe bertan dastatzeko aukera.

Txartelak salgai: AEDn, AEKn eta Monte eta Iturriotz tabernetan.

Prezioa: 12 euro.

Antolatzaileak:

AED, AEK eta EHE.

23:00 Santa Barbaratik SU ARTIFIZIAL ikusgarriak. Pirotecnia Astondoa.

23:30 DANTZALDIA Triki Ta Ke taldearekin.

23:30 Aukeran dantza taldeak *Izena duen guztia omen da* IKUSKIZUNA egingo du.

Egubakoitza, 25

08:30 DIANA ARRASATEKO GAITARIEKIN

09:00 ENTZIERROA: Ferrerías-Erdiko kalea-Iturbide-Laubide plaza.

Gero, bigantxak, zezen-plazan.

10:00 Umeak esnatzeko DIANA izango da.

11:45-12:00 Seber Altubetik pasatzen diren umei borlak, marakak eta banderatoak banatuko zaizkie Eguzki Laruri

ongietorria egiteko.

12:00 EGUZKI LARURI ongietorria Zaldibarren; gero jolasparkea zabalduko dute, 14:30ak arte.

12:30 Arrasateko Trikitilarietara KALEJIRA.

16:00-17:30 Zaldibarren

Eguzki Laruren JOLASPARKEA irekiko dute berriro.

17:30 Zaldibarren

TXOKOLATE-JANA.

18:00 Zaldibarren ZIRKU KALEJIRA Sebastopoleko Titiriteroekin.

19:00 ERRALDOI ETA KILIKIEN KONPARTSAREN irteera.

19:15 Zaldibarren EGUZKI LARURI AGURRA.

20:00 Herriko kaleetan KALE ANTZERKIA Oihulari Clown taldearekin: *Otiacich.*

22:30 Herriko Plazan EUSKADI GAZTEAREN DISKO FESTA.

23:00 Monterronen Albadulake konpainiaren *Malaje* IKUSKIZUNA.

Zapatua, 26

08:30 DIANA ARRASATEKO GAITARIEKIN.

09:00 ENTZIERROA.

Aurreko eguneko ibilbidea. Gero, bigantxak.

12:00 FANFARREN

KALEJIRA.

16:00 San Andres Xake Taldearen LAUKO XAKE TORNEOA.

17:30 Fanfarreekin KALEJIRA.

18:00 Zaldibarren, ARKU TIROKETA LEHIAKETA. Arku tiroketa praktikatzeko aukera ere izango da.

19:30 Herriko Plazan SOKA DANTZA.

20:00 Herriko Plazan TRIO CHAMUYOren emanaldia. Tangoak eta milongak, dantzarietara.

22:30 Monterronen RUPER ORDORIKAREN kontzertua.

Domeka, 27

BARRAKAK prezio berezian. Bidaia 0,80 euro.

11:30 ERRALDOIEN BILKURAREN hasiera: Zaldibar, Biteri, Garibai, Zerkaosteta, Olatte, Ferrerías, Iturriotz, Erdiko kalea, Herriko Plaza. Gero KALEJIRA gaitariekin.

Konpartsak:

Arrasate, Basurto, Iruñea (alde zaharra) eta Sanduzelai (San Jorge). Gaitariak:

Arrasate, Gasteiz, Burlata, Eltziego, Bilbo, Tuteria, Iruñea, Elgoibar, San Jorge eta Txantrea.

13:30 Udaletzeko osoko bilkuren aretoan Aitortzeko Ekitaldia:gaitariei 25. urteurrenean eta SUDC elkarteari 40. urteurrenean.



EGUZKI LARURI ONGIETORRIA

Umeek gozatzeko aukera izango dute Eguzki Larurekin: ongietorria egingo diote, eta horren ondoren, jolasparkean ariko dira, egun osoan barrena.

Non: Zaldibar

Noiz: egubakoitza, 25 / 12:00



OMENALDIA GAITARIEI, ETA ERRALDOIEN BILKURA

Arrasateko Gaitarietara 25 urte eman dituzte San Juan jaiak girotzen. Arrasateko herriak dedikazio eta leialtasun hori eskertu gura ditu aurten. Hori dela eta, gaitarietara omenaldia antolatu du Udalak. Bestalde, San Juan eguneko kontzertuan joko dute gaitarietara, Arrasate Musikaleko Bandarekin.

Baina omenaldiaren aurretik erraldioen bilkura egingo da. Arrasateko eta kanpoko erraldoi eta gaitari taldeek esku hartuko dute. Hain justu, Arrasate, Basurto, Iruñea (alde zaharra) eta Sanduzelaiko (San Jorge) konpartsek hartuko dute parte bilkuran eta baita Arrasate, Gasteiz, Burlata, Eltziego, Bilbo, Tuteria, Iruñea, Elgoibar, San Jorge eta Txantreako gaitarietara ere.

Non: kalea eta udaletxea

Noiz: domeka, 27 / 11:00 eta 13:30



RUPER ORDORIKA

Kantari oñatiarrak azken diskoa eta betiko abestiak aurkeztuko ditu Monterronen. Toki paregabea, eguraldiak laguntzen baldin badu.

Non: Monterron

Noiz: zapatua, 26 / 22:30



JUBAR
ATEAK, S.L.

Kataide industrialdea 18 • 110 posta-kutxa • ARRASATE
Tel.: 943 79 10 20 • Faxa: 943 79 08 17 • jubarateak@euskalnet.net

- Garajeko atea
- Burdinazko pertsianak
- Automatismoak
- Konponketak

- Urrutiko agente tresna homologatuak
- Oinezkoen ateentzako sistema automatikoak



■ DANTZA IKUSKIZUNA

Aukeran dantza taldeak lehena eta oraina lotuko ditu

OIHANA ELORZA

Aukeran dantza taldeak *Izena duen guztia omen da* ikuskizuna egingo du Monterronen. Dantza tradizionala eta gaur egungoa uztartzen dituz lan horrek, eta euskal mitologiako pertsonaiek pisu berezia daukate. San Juan egunean, ekainaren 24an, aurkeztuko dute ikuskizuna, 23:30ean, Monterronen.

Izena duen guztia omen da izena duen ikuskizuna Aukeran dantza taldearen bigarren lana da. Ikuskizun hori euskal kulturaren aspaldiko mitoetan oinarritzen da; Euskal Herrian kristautasuna ezarri aurreko garaian, hain zuzen ere. Mito horien bitartez, ulertzen ez dituen gauzak azaltzen saiatuko da gizakia.

Tradizioaren arabera, kanpaien errepikak, hau da, kristautasunaren etorrera irudikatzen duen metaforak, antzinako kulturaren jainkoak desagerrarazi zituen. Baina gizakiak, orain dela milaka urte moduan, izarrei eta naturari begira jarraitzen du, erantzunik gabe dituen galderak ulertzeko. Horrekin lotuta, antzinako kondairak horrela esaten du: *Izena duen guztia omen da*, hain zuzen ere. Eta horixe bera hartu du ardatz Aukeran dantza konpainiak.

MUSIKA ETA ARGIA

Ikuskizun berri horretarako, lehendabiziko ikuskizunean — *Sutargi*— erabili zituen elementu batzuk erabiliko ditu berriro taldeak. Besteak beste: zuzeneko musikaren eta dantza tradizionalaren eta gaur egungoaren uztarketa. Hala ere, bi lanen arteko estetika oso ezberdina da.

Baina horrez gain, giro bereziak lortzeko argiarekin asko jolas egingo dute. Horretarako, tula (ehun gardena) erabiliko dute. Tulak ahalbideratuko du eszenako sarrerak eta irteerak iluntasunean egitea, eta musikariek eszenatokiaren atzealdearekin bat egitea, dantzari protagonismoa ken ez diezaieten.

MITOLOGIA ETA JANTZIAK

Izena duen guztia omen da laneko jantzi guztiak, Aukeran taldeak berak irudikatu eta diseinatu ditu. Jantzi horiek *Sutargi* laneakoak baino sinpleagoak dira, ez hain sofistikuak. Sinpleak izan arren, garrantzi handia dute, ordea, eta Aukeran taldekoen esanetan, "jantziak lan horren



Jantziak, ikuskizunaren zati garrantzitsuenetako bat dela diote Aukeran dantza taldeko kideek.

elementu garrantzitsuenetakoak dira".

Jantzi horiekin, ez dituzte mitologiako pertsonaiak bere horretan erakusten. Irudiak berdin kopia behar, antzerkoak izango dira, eta ikusleei aditzera emango diete zein pertsonaia irudikatu edo antzestu gura duten.

PARTE-HARTZAILEAK

Edu Muruamendiaraz bergararra da Aukeran dantza konpainiako zuzendaria; baita dantza koreografiaren arduraduna ere. Gidoiaren egileak eta eszenako zuzendariak J. A. Vitoria eta Garbi Losada dira.

Horiez gain, beste lagun askok hartuko dute parte emankizun horretan. Guztira, hamar lagunek egingo dute dantza San Juan

egunean, Monterronen: Edu Muruamendiaraz, Aiert Beobide, Gotzon Poza, Eli Alberdi, Iurre Aranburu, Maitane Muxika, Onintza Odriozola, Naikari Galarraga, Naia Iarritu eta Ander Errastik, hain zuzen ere.

Dantzarietz gain, bost musikariek zuzenean hartuko dute parte ikuskizunean: Sergio Lamuedra, Arantxa Antsa, Lourdes Akorta, Ainhoa Izagirre eta Ainhoa Antsak.

Baina musikari eta dantzarietz gain, teknikariek eta banaketa eta beste hainbat arlotako langileek ere osatzen dute Aukeran.

AUKERAN DANTZA TALDEA

Duela zazpi urte jaio zen Aukeran dantza taldea. Orduan, euskal koreografo berrien lehendabiziko erakusketa sortu zuten, eta

Jantziak beraiek egin dituzte, eta ikusleei aditzera emango diete zein pertsonaia irudikatu gura duten

Euskal mitologia eta aspaldiko usadioak ekarriko dituzte gogora hamar dantzari eta bost musikariek, zuzenean

Edu Muruamendiarazek bere ideia aurkeztu zuen. Eduren proiektuak dantza tradizionala eta gaur egungoa batzen zituen. Gainera, zuzeneko musika jantzen zuen, eta, hain zuzen ere, elementu horiek izen ona eman zioten Aukeran dantza taldeari.

2001ean, *Sutargi* lana prestatu zuen konpainia horrek, eta Euskal Herrian ez ezik, kanpoan ere ikuskizun asko eskaini zituen

eta ikusleek ondo hartu zuten lana. Harrezkero, dantza eta antzerki jardunaldi, lehiaketa eta erakustaldi askotan hartu du parte; Lekeition, Donostian, Miarritzen, Manresan eta Eibarren, besteak beste.

Lan berri horrekin, Euskal Herriko dantza konpainia gisa finkatzen du bere burua Aukeran taldeak. Orain, bira egingo du *Izena duen guztia...* aurkezteko.



Ikuskizuneko momentu bat.

AUKERAN

AUKERAN

■ SUDC ELKARTEARI OMENALDIA EGINGO DIOTE

Txoko gastronomikoen elkarteak 40 urte bete ditu

OIHANA ELORZA

Arrasateko gastronomia txokoak biltzen dituen elkarteak da SUDC, eta aurten, 40 urte bete ditu. Sortu zenetik, makina bat ekitaldi antolatu du San Juanetarako. Baita aurten ere. Aurtengo egitarauak, ordea, eurei egin behar dieten omenaldia ere jasotzen du, herriak egin duen ahalegina eskertu nahi dio-eta.

San Juanetan ez ezik, urtean zehar ere antolatzen ditu ekitaldiak SUDCek, eta parte-hartze zuzena izaten du herriko jai nagusietan, San Juanetan. Aurtengo jaien egitarauak, ordea, ekitaldi berezi bat jasotzen du: elkartearen 40. urteurrenaren ospakizuna, hain zuzen ere.

OSPAKIZUN EKITALDIAK

Urteurren ospatzeko, hala ere, ez dutela gauza handirik prestatu diote SUDCeko kideek. Egin duten gauza berezi bakarra fanfarrearen alardea izan dela diote: "Sei fanfarre datoz, 100 lagun baino gehiago. Eguerdian hasi eta 19:00ak arte ibiliko dira".

Baina hilabete batzuk aurrerago, ospakizun berezi bat egitea aurreikusi dute txoko gastronomikoen elkartearen kideek: "Gure asmoa da urri ingururako kontzertu bat-edo prestatzea. Ahal bada, Goikobalurekin egin gura genuke. Eta gero, nahi duguna da hurrengo urterako, *playback* jaialdia berreskuratu".

Edozelan ere, nahiz eta eurek ospakizun handirik gura ez, Udalekoak gogoratu dira eurekin, eta baita azken 40 urte hauetan egin duten lanarekin ere. Horrela, jaien azken egunean, ekainaren 27an, domeka, Aitortzeko Ekitaldia egingo dute osoko bilkuren aretoan. Besteak beste, SUDC elkartearen 40. urteurrena eka-

rriko du gogora Ignacio Lakuntza alkateak, eta oroitzapenerako opariren bat emango diete.

ERRELEBUARI BEGIRA

SUDC elkarteak zuzendaritza batzordean sei lagun daude, eta ez du apenas aldaketarik izan azken urteotan. Are gehiago, aldaketa gutxi izan ditu 40 urte hauetan. Lan asko egin duten arren, oraindik ez daudela nekatuta diote, baina errelebu gustura hartuko luketela aitortzen dute: "Nekatu ez gara egin, oso lan polita da herriaren alde lan egitea, gustura egiten dugu, baina jende berriarekin ideia berriak datoz. Joan den urtean dei egin genuen jende berria etortzeko, baina ez da mugimendurik egon, eta aurten, berriro saiatuko gara", diote kideek.

Kontuak kontu, aurrera jarraitzen du SUDCek. Hilero batzar bat egiten dute elkarte guztietako ordezkariak, eta ekintzak eta antzerakoak antolatzeko. "Adibidez, azkenengo aldiz, omenaldia egin genien erretiratuei".

PRESTATZEN DITUZTEN EKITALDIAK

Urtetik urtera, jendeak gero eta gutxiago parte hartzen duela diote: "Ikusteko ekintzak gustatzen zaizkie, pasiboagoak".

SUDCek ekitaldiak antolatzeko jarraitzen du, azken urteotan aldaketa handirik egon ez den arren: "Nagusien danborradan beste lau konpainia sartu dira azken urte hauetan, *playback* jaialdia desagertu egin da, baita bakailao lehiaketa ere, oso elkarte gutxik parte hartzen zutelako. Haurren eguneko bazkariak ere geu arduratzen ginen lehen, baina orain ez", gogoratzen dute SUDC elkartearen kideek.

ETORKIZUNARI BEGIRA

Sortu zenetik hona, lehendakari bat baino gehiago izan ditu SUDC



SUDC elkarteak 40 urte daroa San Juanetako danborrada antolatzen.

Udalak Aitortzeko Ekitaldia egingo dio SUDC elkarteari 27an, eskerrak emateko

elkarteak. Jose Egidazu *Casino* izan zen lehendabiziko lehendakaria eta egungoa Andoni Altzelai da, 1999az geroztik.

1963an, hiru ekintza antolatuz hasi ziren: erretiratuei omenaldia, danborrada eta Seat 600 autoaren zozketa. Harrezkero, ekin-

Urri ingururako kontzertu bat prestatu nahi dute, Goikobalurekin, ahal bada

tza gehiago eta ezberdinak antolatu dituzte urtero-urtero. 1982. urtea, adibidez, oso garrantzitsua izan zen. Urte hartan, 20 ekintza baino gehiago egiten hasi ziren. Ordukoak dira: umeendako tortilla lehiaketa, San Juanetako entzierroa, aratusteak, eta

Datorren urtean *playback* jaialdia berreskuratu nahi dute; lanean jarraituko dute

fanfarreen ikuskizuna, adibidez. Ekitaldi hauetako batzuk desagertu egin dira, baina elkartearen etorkizuna ez dago zalantzan: "Herriko elkarte gastronomikoen arteko harremana ona da, eta ia gehienak etortzen dira batzarretara".



Profesionalak gara.
Bai salmentan,
bai ondoren eskaintzen diren zerbitzuetan ere.




Mercedes-Benz

GOIKO-LENIZ
Araba Etorbidea z/g ARRASATE
Tel.: 943 71 19 03



SAN JAIAK 2004 GOIENA TELEBISTAN

Arrasaten bertan egotea bezala

SAN JUAN JAIAK 2004

Ekainak 22

"Eskuak Elkarri" antzezlanaren emanaldia.
20:30ean

Ekainak 29

Saio berezia.
21:15 eta 23:15ean

Ekainak 30

Saio berezia.
15:00etan



Ikustekoa!

Goienka2a

Egubakoitza / 2004ko ekainaren 18a

Kultura
eta
aisialdia



Ekainaren
18tik 25era

Udako solstizioaren lilura

Astlehenean udan sartuko gara. Goizeko hirurak hiru minutu gutxi direnean estreinatuko dugu urtaro berria. Urteko bigarren urtaroa, urtaro bero eta lehorrena. Egun hauek urteko egunik luzeenak dira. Eta denetan luzeena domeka izango da, udako solstizioaren bezperako eguna. Ekainaren 20an, eguneko 15 ordu eta 25 minutu argitan egingo ditugu. Hurrengo egunak ere antzerakoak izango dira, segundo gutxiren aldea izango dute, harik eta San Juan egunaren biharamuna heldu arte. Ekainaren 25etik aurrera, segundoak pilatzen joango dira, minutua harrapatu arte. Udako solstizioak esanahi berezia du. Eguzkiaren jaia da. Eguzkiari eskerrak eman nahi dizkio gizakiak, eta festa antolatzen du. Aldi berean, solstizioa amaitzean eguzkiak indarra galduko duela uste du gizakiak, eta sua pizten du bazter guztietan eguzkiak indarrari euts diezaion. Sorginak txilar-erratzen gainean joaten dira ospakizunera. /14

NATURA/ UDAKO SOLSTIZIOA

Argiak ilunari irabaziko dion gaua

UDAKO SOLSTIZIOAK EGUZKIAREN INDARRA GOGORARAZIKO DIGU, ETA SAN JUAN GAUA INDARRARI EUSTEN SAIAUKO DA

OIHANA ELORZA

Urteko egunik luzeena datorren domekan helduko da, ekainaren 20an. Eguzkiak gaina joko du, eta argitan ordu gehiago egingo ditugu ilunpetan baino. San Juan bezperan suaren gainean egingo dugu dantza, eta ikasleek apunteak erreko dituzte oporretara joateko.

Lurraren iparralde aldean bizi garenok urteko egunik luzeenetan gaude. Goizean goiz ateratzen da eguzkia, eta berandu erretiratzen da, ohera joateko ordua denean ia-ia. Jaikitzea, ordea, ez zaio batere kostatzen. Datorren astelehenean, ekainaren 21ean, udako solstizioak tira egingo dio argiari, eta eguneko minutu gehienak argitan egingo ditugu.

Gizakia aspaldi konturatu zen fenomeno horretaz, San Juan egunaren bezperan gertatzen dela konturatu baino lehen. Izan ere, udako solstizioak San Juan egunak baino urte gehiago ditu, zaharragoa da.

EGUZKIAREN INDARRA

Gizakiak beti begiratu izan dio naturari, eta beti egin dio kasu. Haizea, euria eta eguzkia errespetatu ditu, eta urtaroak datozen

bezala hartu ditu. Aspalditik hona gertatzen da hori, gizakia existitzen zdenetik. Urtaroak noiz hasi eta noiz amaitzen diren aztertu eta ikusi du, eta bakoitzaren hasieran eta amaieran zer gertatzen den ere jakin du. Sasoi bakoitza elementu ezberdinekin erlazionatu gura izan du beti, eta honelako lotura batzuk asmatu izan ditu. Txilarra, udako solstizioaren egunari dagokion zuhaitza da, adibidez.

Egiptoarrek, inkek, zeltek, greziarrek eta erromatarrek sekulako jaiak antolatzen zituzten udako solstizioa ospatzeko. Orduko arbasoek uste zuten ekainaren 21etik aurrera eguzkiak bere indarra galdu egingo zuela. Egunak gero eta motzagoak zirela konturatzen ziren, eta eguzkia galduko zuten beldur omen ziren. Horrexegatik, sua pizten zuten. Suaren bitartez, eguzkiari bere energia bueltatu nahi zioten, indarra hartzen lagundu nahi zioten eguzkiari. Suarekin, gainera, gauza txar guztiak erre egiten zituzten, eta garbi hasten zuten uda, urteko sasoi bero eta lehorrena.

Sorginek eta aztiekin ere ospatzen dute udako solstizioa. Eguzkiaren indarra sorginen kobazuloetaraino heltzen da, eta erratzaren gainean egiten diote



Euskal Herriko hainbat txokotan piztuko dute sua San Juan bezperan.

ARETXAGAZETA

Bla, bla, bla, bla, bla...

Zenbat eta gehiago berba egin, orduan eta aukera gehiago telefono mugikor berri bat eskuratzeko Euskaltelekin.

Zatoz Arrasateko bulegora eta galdetu ea ze telefono eraman dezakezun!

ROUTER
COMUNICACIONES, S.L.

Maalako errabala 8, behea (Garibai)
Tel. 943712781
Faxa 943711785
ARRASATE



-en banatzaile ofiziala

Tarifa
pertsonalizatuak

Zatoz gure bulegoetara eta informa zaitez

- Aseguruak
- Finantzaketa
- Renting
- Balio erantsien lantegiak

MAPFRE
AUTOMÓVILES

Mapfre
Errekabarren 3
943 77 11 76
ARETXABAETA

Mapfre
Garibai etorbidea 16
ARRASATE
943 79 89 00
Arrasate pasealekua 37
ARRASATE
943 79 71 31

Mapfre
Simon Arrieta 3
943 76 18 80
BERGARA

Altube zerbitzuak-Mapfre
Portu 5
943 78 12 65
ONATI

OSPAKIZUNAK/ HIRU BANDAREN KALEJIRA ETA KONTZERTUA, ETZI, DOMEKA

harrera sorginek. Haiek ere sua piztuz eta akelarreak eginez ospatzen zuten urteko egunik luzeenetakoa. Euskal Herrian, adibidez, Zugarramurdiko akelarreko sorginek oraindik ere ospatzen dute ekainaren 21a.

SAN JUAN OHITURAK

Udako solstizioa munduko bazter guztietan ospatzen da, garai, zibilizazio eta erlijio guztietan. Eta ia toki guztietan modu berean ospatzen dute, gainera: sua eginez eta suaren gainean salto eta dantza eginez.

Ohitura pagano horri eutsi egin dio kristautasunak. San Juan egunaren bezperan, San Juan gauean, sua pizten dute erlijio kristaua nagusi den lurraldeetan. Antzinako ohiturari jarraituz, herriko plazetan ez ezik, inguruko baserri, auzo eta mendi gainetan ere pizten dute sua ekainaren 23an. Etxe askotan, lizar adarrak jartzen dituzte elementu gaiztoak uxatzeko. Gainera, ohetik jaiki eta goizeko lehenengo orduetan, eguneko eginbeharrekin hasi baino lehen, etxe ondoko belarretan, zelaian, oin hutsik ibiltzeko ohitura ere badago. Oraindik ere fededun askok kentzen dituzte etxeko zapatilak belar gainean ibiltzeko. Baserri batzuetan, ber-

tako nagusiak etxeari hiru buelta ematen zizkion inguruko sugeak uxatzeko. Bazter batzuetan, erretzen zen belarra etxeko ume txoen azaleko gaitzak osatzeko erabiltzen zen, eta beste zenbait lekutan, aurreko urteko belarra bedeinkatu eta erre egiten zuten, sarna eta larruazaleko gaitzei zioten beldurra gainetik kentzeko.

SORGINEN ERRATZAK ETA 'SAN JUAN LOA'

Txilarra omen da udako solstizioaren zuhaitza, sorginen erratzak egiteko erabiltzen den txilar bera. Sorginek eta aztiekin erratzak hartu eta San Juan bezperan egiten den suaren gainean egiten dute dantza, txilarrarekin egindako erratzak inguruko gauza txar eta gaizto guztiak sutara bota ostean.

San Juan bezperaren magia aspaldikoa da, eta eutsi egiten zaio oraindik ere.

San Juan egunean siestarik ez dela egin behar ere jasotzen dute ohiturek; maldizio berezia omen dauka ekainaren 24ko sies-tak. Pello Zabalak *Naturaren Mintzoa* liburuan jasotzen duen moduan, urte osoan loz ezin aserik pasatzen omen zuen San Juan eguneko bazkalostean lo egiten zuenak. Lotia denari, *San Juan loa* duela esan ohi zaio.

Oñatiko Bandak jaia egingo du etzi, 25 urte dituela-eta

LEIRE KORTABARRIA

Oñatiko Musika Bandak jaialdia antolatu du etzira, domeka, 25. urteurrena ospatzeko. Beste bi Banda etorriko dira, eta kalejirak eta kontzertua egingo dituzte.

Etzi, domeka, izango da Oñatiko Bandaren urteurren jaialdia. Eta ez dira bakarrik egongo: Mutrikuko eta Azkoitiko Bandek ere parte hartuko dute. 11:30ean, banda bakoitzak kalejirari ekingo dio, Kanpantxotik, Olatik eta Euskadi Etorbidetik; Herriko Plazan bilduko dira, eta 12:30ean, bigarren ekitaldi garrantzitsua: Herriko Plazako frontoian kontzertua eskainiko dute. Lehenengo, banda bakoitzak pieza bana joko du; gero, hirurek elkarrekin joko dituzte *Oñatiko herriari* zortzikoa —Oñatiko ereserki kontsideratzen dena—, *Cantos vascos*, *Atzeko kale* eta *Agur jaunak*.

Bandako kideek espero dute oñatiar guztiek bat egitea ospakizun horrekin. Hala adierazi zuten eguaztenean egindako aurkezpenean.

EGUN BAKARRERAKO BILDU ZIREN

Oñatiko gaur egungo Udal Musika Bandaren sorrera berezia izan



Oñatiko Bandako zuzendaria eta hainbat kide, jaialdiaren aurkezpenean.

zen: herriko Gorpuzti jai handirako musika banda behar zuen Udalak, eta herriko hainbat musikariri horixe eskatu zioten. "Egun bakar baterako bildu ginen... eta dagoeneko 25 urte daramatzagu", gogoratu zuten Bandako kideek eguaztenean egin zuten prentsaurrekoan. Gorpuztiko eguneko lan ona ikusita, ordea, Udalak eskatu zien hasierako 29 musikariori San Migel jaietan, Gabonetan... ere jo zezaten. Kontratua

eskaini zien... eta Bandak hor segitzen du, Oñatiko ekitaldi garrantzitsuenak ezin hobeto girotzen. Inazio Ibarrondo Bandako zuzendariak azaldu zuenez, "esanguratsua da hasierako 29 lagunetatik bakarrik bik utzi izana Banda". Gaur egun, 52 kide dira.

Irteerak ere egin dituzte, eta Mutriku eta Azkoitiarekin izan zuten lehenengo harremana. Horregatik gonbidatu zituzten herri horietako bandak jaialdira.

Urteak erdia egin du

Astehenean, udako solstizioarekin batera, urtearen erdialdeko astean sartuko gara. Egutegiari begiratu, urteak 53 aste ditu, eta 26.a izango da datorrena, San Juan jaien astea.

San Juan bezperako sutean erre behar omen dira inguruko elementu txar guztiak, inguruko bazterretan dauden traste zahar eta asmo txar guztiak. Urte berriarekin batera, makina bat promesa egiten dugu. Oraindik bete gabe daudenak sutara bota ditzakegu San Juan bezperan, norberak duen amorraren maldizioarekin batera erre daitezten. Promesa zaharrak erre, eta urtearen bigarren erdirako asmo berriak iragarri.

Ekainaren 21etik aurrera, udako bigarren urtaroen sartuko gara, urtarorik beroenean. Tenporei kasu eginez, udako bigarren erdia lehenengoa baino beroagoa izango da, eta lehorra izango den beldur dira adituak. Udazkena ere lehor hasiko den beldur, gainera. Baina lehendabiziko zatian, lehenengo hilabetearen inguruan, eguraldi ona eta bero egin arren, ez da bero itogarria izango, sanao baizik. Baina noski, iragarpen hau tenporek egin dute, udako tenporek. Beste behin, naturari begiratu dio gizakiak zer-nolako urtaroa datorren ikusteko. Askok ez dute federik, baina naturak beti markatzen du bidea.

Zorion agurrak, SMS bidez!



Senitarteko, lagun, ezagun edo gustuko duzun neska/mutila bere urtebetetzean zoriondu nahi baduzu, **Astehenekoa Goienkaria-k** beste aukera bat emango dizu, SMSak bidalita.

Bidali mezua: **gnkzorion [laga tarte] [mezua] 7744 zenbakira.**

Hurrengo **Astehenekoa Goienkaria-n** irakurri ahal izango du berak zure mezua...

SMSaren kostua 0,90 euro+BEZa

Gainera, Goienako edozein egoitzetara etorri edo deituz ere, zoriondu ahal izango dituzu lagunak eta etxekoak **Astehenekoa Goienkaria-n!**

Goienkaria
astehenean, aste bukaera osoa

C&C *Matrikula zabalik!*

LLONGUERAS AKADEMIA
IRAKASKUNTZA ZENTROA
Ez zaitetz gutxiagorekin konformatu

Ile-apainketa eta estetika

- Titulu ofiziala
- Erresuma Batuan 3. maila
- Llongueras titulua

Olagibel kalea 61 B . Tel.: 945 12 03 60
Posta-e: ces-llongueras@ya.com

Ekainak 18-25

Leire Kortabarria / Zuen ekitaldien berri iragarri ahal izateko bidali informazioa eguazteneko eguerdiko 12:00ak baino lehenago • Posta elektronikoa: kultura@goiena.com • Tel.: 943 76 03 97 • Faxa: 943 76 29 77

MUSIKA

BERGARA

- **Life of Agony** taldeak kontzertua eskainiko du gaur, egubakoitza, Jam aretoan, 21:30etan. *River runs again: Live 2003* lan berria aurkeztuko dute. Hedtrip taldeak ere joko du. 18 euro da.
- **Marillion eta Gazpacho** taldeen emanaldia izango da bihar, zapatua, Jam aretoan, 20:00etan. 24 euro da.
- **Herriko hainbat taldek** kontzertua eskainiko dute bihar, zapatua, gaztetxean, 21:30ean, gaztetxearen 4. urteurrena dela-eta. Bertsioak joko dituzte.
- **Hainbat disko jartzailek** Txusoren omenezko emanaldia egingo dute bihar, zapatua, Go-Jam aretoan, 01:00etan.
- **Soulfly eta P.M.T.** taldeen emanaldia izango da eguenean, hilak 24, Jam aretoan, 21:00etan.

ELORRIO

- **Musikaire jaialdia** hasiko da gaur, egubakoitza. Honako emanaldiak izango dira datozen egunotan: gaur, egubakoitza, Hermanas Frontela Rico

taldea (Kuba), Casajara jauregian, 22:30ean; bihar, zapatua, kultura azoka, egun osoan, Herriko Plazan; eta Kilema (Madagaskar) taldearen emanaldia, Lourdesko Koban, 22:30ean.

ESKORIATZA

- **Akulu eta Enboskada** taldeek kontzertua eskainiko dute bihar, zapatua, gaztetxean, 20:00etan.

OÑATI

- **Shisha Pangma (Bilbo) eta Materia (Urnieta)** taldeek kontzertua eskainiko dute gaur, egubakoitza, gaztelekuan, 22:30ean.

OSPAKIZUNAK

ANTZUOLA

- **San Joan bezperako ospakizunak** egingo dituzte eguaztenean, hilak 23, Herriko Plazan, 20:00etan. Zuhaitza jasotzea, dantza saioa, lore lehiaketako sari banaketa eta San Joan sua egingo dituzte.

ARETXABALETA

- **San Joan bezperako ekitaldiak** izango dira eguaztenean, hilak 23. Besteak beste, honakoak: buruhandi eta txistularien kalejira; euskal dantza eta musika emanaldia; Loramendi Dantza Taldearen eskutik, San Joanetako zortzikoa; San Joan sua; eta Santa Ageda mutilek tantaia jasoko dute Herriko Plazan.

BERGARA

- **Jardun elkarteak ikasturte amaierako jaialdia** egingo du gaur, egubakoitza, Zabalotegi aretoan, 19:00etan.
- **Gaztetxearen 4. urteurreneko ospakizuna** izango da bihar, zapatua. Poteoa egingo dute 14:30ean, gaztetxetik abiatuta; segidan, bazkaria izango dute gaztetxean, eta hainbat txapelketa, bazkalostean.

ESKORIATZA

- **Aste Zapatistaren barne, aldarrikapen jaia** izango da bihar, zapatua. Honako ekintzak antolatuko dituzte: 13:30ean, herri poteoa; 14:30ean, bazkaria, Txipasko janari tipikoekin. Segidan, malbareak, txiste

kontalariak, musika... 19:30ean, *Mundu hobearen alde* kalejira; eta 22:00etan, kontzertua gaztetxean.

- **San Juan bezpera** ospatuko dute eguaztenean, hilak 23. Herriko Plazan, sua piztuko dute eta gazteek tantaia jasoko dute.

OÑATI

- **Hainbat auzoko jaiak** izango dira asteburuan. Olakuan gaurtik etzira bitartean izango dira; Garagaltzakoak, bihar eta etzi; eta Koiskar eta San Juan auzokoak, etzi, domeka.

DEIAK

ARETXABALETA

- **Txalaparta ikastarorako izenematea** zabali dago hil osoan, Loramendi elkartearen.

ARRASATE

- **Holiday zirkoak** emanaldiak egingo ditu bihar eta etzi, Eroski inguruko parkean, 17:00etan eta 19:30ean.

BERGARA

- **Sendabelarrak batzeko ibilaldia** egingo du Jardunek hilaren 26an, eta izenematea epea zabalik dago. 6 euro da. Horretarako, joan euren bulegora.
- **Ohiko Batzar Nagusia egingo du Aranzadi Ikastolak** hilaren 29an, martitzena, UNEDeko areto nagusian, 18:00etan, lehenengo deialdian, eta 18:30ean, bigarrenean.
- **Bedelkar dendarien elkarteak sari zozketa** egingo du gaur, egubakoitza, Herriko Plazan, 19:00etan. Hain zuzen, egun horretan Bedelkarren edozein dendan egindako erosketa txartelak aurkeztu daitezke zozketa. Egun horretako erosketaren zenbatekoa izango da saria.
- **Noviembre** filmaren emanaldia izango da etzi, domeka, gaztetxean, 19:30ean.
- **Alzheimer gaitza dutenendako oporraldiak** antolatu ditu Afagi elkarteak. Gaixoon laguntzaile batek ere parte har dezake. Nojan izango dira egonaldiak, irailaren 14tik 24ra bitartean. Izena emateko, jo udaletxera.
- **Odol-ateratzeak** izango dira eguaztenean, hilak 23, seminarioan, 18:30ean.

EKAINEAN

30

EGUN PAREGABE

Orain, ekainean, egunero eskaintza ezin hobea izango duzu. Astebetean bakarrik lor dezakezu, edo plazak bukatu bitartean. Zabilta arin!

CUBA	699€ <small>Prezioa pertsonako</small>
<small>HABANA. Ekaina. Uztailaren 18ra arte. Iraila. Urria. 7 egun-5 gau. Hegazkina Madriletik. Occidental Miramar Hotela****. Gosariak barne.</small>	
SALVADOR DE BAHIA	599€ <small>Prezioa pertsonako</small>
<small>Ekaina. Uztailaren 18ra arte. Iraila. Urria. Hegazkina Madriletik. 9 egun-7 gau. Vila Gale Hotela****. Gosariak barne.</small>	
XACOBEO 04	210€ <small>Prezioa pertsonako</small>
<small>SANXENSO. 07/1etik 07/15ra. 8 egun-7 gau. La Lanzada Hotela**.</small>	
MENORCA	370€ <small>Prezioa pertsonako</small>
<small>MAHON. 06/20etik 07/18ra eta 09/1etik 09/23ra. 8 egun-7 gau. Hegazkina Bilbotik. IBB Aquarium Hotela***. Mantenu erdia.</small>	
ALMERIA	285€ <small>Prezioa pertsonako</small>
<small>ROQUETAS DE MAR. 07/3tik 07/16ra. 8 egun-7 gau. Zoraida Park Hotela***. Mantenu erdia. HAURRAK %50EKO DESKONTUA.</small>	
ITALIA	665€ <small>Prezioa pertsonako</small>
<small>DOLCE VITA ZIRKUITOA. Irteerak 07/10, 07/17, 09/4 eta 09/11. Hegazkina Bilbotik. 8 egun-7 gau. Hotela****/****. Gosariak barne.</small>	

... Eta horrela uneko preziorik onena asteko egun guztietan



Viajes Eroski Bidaia

Grupo Eroski

Kalitatea Bermatuta

www.viajeseroski.es



JON ANDUEZA

► DEIAK

SAHARAR HERRIARI ELKARTASUNA AZALTZEKO BI AUKERA

Sahararen Astea bihar, zapatua, bukatuko da Bergaran. Saharako haima edo kanpadenda handi baten bidez, saharar kultura zuzenean ezagutzeko modua izango dugu. Herriko Plazan muntatuko dute 11:00etatik 14:00etara bitartean. Bertan, ipuin kontalariak, arropa erakusketak, hennaren erabileraren erakustaldia, te dastaketak eta beste hainbat erakusketa izango dira. Horrenbestez amaituko dira Komite Internazionalistek antolatutako ekintzak. Edozelan ere, Sahararekiko elkartasunarekin lotutako berri gehiago ere badago: Nubi taldeak (adiskide, sahararrez) udan saharar umeak hartzeko prest dauden familiak behar ditu Debagoienean. Argibideetarako honako telefonoa ipini dute: 661 33 85 87.

Non: Bergaran. **Noiz:** bihar, ekainak 19. **Ordua:** 11:00etatik 14:00etara. **Antolatzailea:** Komite Internazionalistak.

AIPAGARRI

Unai Arantzabal

BERGARA

Denboraldi bikaina ari da egiten Unai Arantzabal txirrindulari gaztea. Erlojupean, Gipuzkoako onena da eta joan den asteburuan, Euskal Herriko txapelketan bigarren egin zuen, Izarran. Aurtengoa bere azken urtea da, gazte mailan. Datorren urtean amateurekin ibiliko da errepidean.



Maddalen Legorburu

ANTZUOLA

Maddalen Legorburu antzuolarrak lehenengo egin du Euskadiko gimnasia erritmikoko txapelketan. Joan den zapatuan jokatu zuten proba Hernanin, eta lehen postua lortu zuen, gazteen mailan. Maddalenek Bergarako Ariznoa gimnasia taldean dihardu.




Roberto Izagirre

BERGARA

Barre barra-barra ipuin barregarrien lehiaketa irabazi du Roberto Izagirrek. Debagoieneko onenaren saria ere berak eskuratu du, guztira, 600 euro. *Aspaldikoak* lana aurkeztu du Robertok, eta aitaren kontakizunetan oinarritutako lana da. 12 lan aurkeztu dituzte lehiaketara.



Pedro Imaz eta Asun Pazo, Bergarako udaletxean ezkondu ziren joan den zapatuan, eta Lasa jatetxean egin zuten bazkaria. Orain, Kanadan daude biak, eztei bidaian. Lagunek eta familiakoek eskerrak eman nahi dizkiete pasa zuten egun ederragatik. Zorionak, bikote!



Esther eta Ibon zapatuan, ekainaren 19an, ezkonduko dira Oiartzunen. Lagunek, mozorrotuta ageri diren argazki hau ekarri digute eta zorionik beroenak eman nahi dizkiote bikoteari.



Maite eta Toño arrasatearrak hilaren 19an, zapatuan, ezkonduko dira Arrasateko parrokian. Ondoren, Karibe aldera joango dira ezkon bidaian. Lagunen partetik, zorionak eta ondo pasa!

HILDAKOAK

- Antonia Martinez Garcia.** Arrasaten, ekainaren 5ean. 87 urte.
- Luis Aranburu Gorostidi.** Oñatin, ekainaren 9an. 81 urte.
- Aitor Moia Sukia.** Oñatin, ekainaren 10ean. 69 urte.
- Leonardo Akizu Verduras.** Eskoriatzan, ekainaren 11n. 69 urte.
- Maria Elorza Igartua.** Oñatin, ekainaren 11n. 90 urte.
- Florentino Murgiondo Etxabe.** Bergaran, 12an. 90 urte.
- Esteban Aldekoa Irazola.** Bergaran, ekainaren 12an. 88 urte.

ESKER ONA

Florentino Agirrezabal Ondarra

Arrasaten hil zen 2004ko ekainaren 8an, 82 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara joandakoei eta samin-agurrak bidali zenizkiguteno, eskerrik asko sendikoen izenean.

Haren aldeko meza egingo da domekan, ekainaren 20an, 12:00etan, Osintxuko elizan. Bertaratuko zaretenoi, alde aurretik eskerrik asko.



Osintxun, 2004ko ekainaren 18an.

URTEURRENA

Juliana Aierbe Zurutuza

Jose Txurrukaren alarguna

2003ko ekainaren 5ean hil zen, 95 urte zituela.

Lehen urteurreneko meza domekan, ekainaren 20an, 12:30ean, Bergarako San Pedro parrokian.



Elizkizunetara joango zaretenoi, alde aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

URTEURRENA

Maxima Aldai Otadui

Lehen urteurreneko meza domekan, ekainaren 20an, 12:30ean, Bergarako San Pedro parrokian.



Elizkizunetara joango zaretenoi, alde aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

URTEURRENA

Filomena Askasibar Guridi

Anbrosio Aranzabalen alarguna

Lehen urteurreneko meza domekan, ekainaren 20an, 12:30ean, Bergarako San Pedro parrokian.




Elizkizunetara joango zaretenoi, alde aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

URTEURRENA

Julian Gantxegi Belategi

Txikito

Lehen urteurreneko meza domekan, ekainaren 20an, 12:30ean, Bergarako San Pedro parrokian.



Elizkizunetara joango zaretenoi, alde aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

GAZTE IKASTAROA ARRASATEN

Gaur egungo dantza

- Irakaslea: Saioa Ibanez
- Uztailak 9, 12, 14, 16 eta 19 (ostiral - astelehen - asteazken), 20:15etik 21:45era
- Arrasate Musikalen
- Matrikula: 20 euro / 10 euro ikasle eta langabeentzat
- Informazio zabalagoa: gazte bulegoan (943 77 00 65) / gaztebulegoa@arrasate-mondragon.net



ARRASATEKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGÓN

Gazteria saila ■

HITZGEZIDUNAK

Luma

	Nolaz, zergatik	▼	Zendu	▼	Nireganatu
	*Izena	▶	Norekin atzizkia	▼	
	Lore	▶			
	Sindikatu abertzalea	▶			
Ikaratiak, kakatiak	Zeregin	▶		Gramoa	▶
Izan ezik	Narrasti izena	▶		Sukar	
▶		▼	Herri hizk, bada	▶	▼
			Elementu kimikoa	▶	▼
*Deitura		▶			
Erne		▶			
▶			Zein lekutara		
			Ez handi ez txiki		
Haur		▶		Dut, bizkaieraz	▶
Urez nahasi, moteldu		▶		500	
▶					
Lehergai ezaguna		▶	A birritan	▶	
Pare bat		▶	Zinkaren ikurra		Garai, aldi
▶			Zerez atzizkia	▶	Gar
			Dago	▶	Letra izena
Adineko		▶			
Izan, eduki		▶			
▶			Nire	▶	

BILABILA7



UMOREGIROAN/ Pedro Zelaia

Pedro Zelaia argitaratutako txiste bilduma-liburutik hartuta.

GOIZALDIAN PASAUTAKUA

Goizeko bostak eta piku direla, badoia plaentxiar bat bere etxera. Pegoran zapatak kendu eta, ixil-ixilik, zabaldu dau etxeko atia. Olan sartzerakuan konturatzan da zapatak ate onduan geratu dirala. Zeguan moduan, jua da atera eta zapatak artzerakuan, danba!, atia itxi jako.

Ene, —diño—, ointxe nagok ondo!

Andik laister, urtetzen dau andriak albako meztara eta gizona itxura artan ikusitxa, esatetsa:

Zer, gizon? Freskuria artzen ala?

LLAVE INGLESA

Orain dala mende erdi pasa, 1947. urtian, Eibarraren oore aundixakin ospatu zan Congreso Eucaristico izenekua. Egundoko jai eta jendetza aundixak izan ziran. Plaentxiarrak be arritxuta geratu ziran. Egun aietan etorri zan plaentxiar bat Eibarrera eta emengo batzuei esan zetsen:

- Eibartarrak modukorik eztagok! Zuek zarie llave inglesa modukoak.

- Zer ba?
- Zuek tuerka guzietara aillegatzen zarie. Denera!

EZETZASMATU!

Estepan Plazaola




Zenbat etxebizitza berri azkeneko 5 urteetan?

Debagoiena biztanlez urritzen ari da apurka-apurka baina bailarako etxebizitza kopurua goraka doa eten barik. Urtero-urtero etxebizitza berri asko egiteko baimenak eman ohi dituzte bailarako udalak. Gai horretxekin lotuta doa gaurko galdera: asmatuko ote zenuke 1999-2003 tartean, 5 urte horietan, zenbat etxebizitza berri egiteko baimena eman zuten Debagoieneko udalak (Aramaiio kontatu gabe)?

- 703
- 1.470
- 935
- 525

Erantzun zuzena: 1.470.

SOLUZIOAK



U	K	A	N	•	E	N	E
•	•	•	•	•	•	•	•
U	R	A	R	D	O	T	U
U	M	E	•	•	•	•	•
A	D	I	•	•	•	•	•
N	L	A	B	A	I	E	N
B	A	•	•	•	•	•	•
G	•	N	L	A	N	•	•
L	L	I	•	•	•	•	•
N	I	K	•	•	•	•	•
•	H	•	N	•	•	•	•

ASTEKO HOROSKOPOA

Gipuzkoako Astrologi Elkarte

ARIES

martxoak 21-apirilak 21



Orain zabiltzan lanean goia jo duzula-eta, beste lanen bat topatu beharko duzu. Horretarako, hausnartzeko astia hartu beharko duzu, zer egin gura duzun zehazte aldera.

TAURUS

apirilak 22-maiatzak 21



Egiten duzun guztiarekin identifikatzen zara, eta kosta ahala kosta zure iritziak defendatzen dituzu. Bada, horrek arazo bat baino gehiago ekarriko dizkizu jendearekiko hartu-emanetan.

GEMINI

maiatzak 22-ekainak 21



Jendeak ez du kontuan hartzen esaten duzuna, eta konfiantza osoko lagun batekin bakarrik izango duzu harremana. Gainerakoengandik ihes egingo duzu.

CANCER

ekainak 22-uztailak 22



Eztabaidak izango dituzu lanean, oraingo egoerarekin ez zaude-eta konforme. Hortaz, aztertu egoera objektibotasunarekin eta ezer esan aurretik ondo pentsatu; bestela, hanka sar zenezake-eta.

LEO

uztailak 23-abuztuak 22



Lagunen batekin eztabaida handiak izango dituzu; izan ere, zuk asko ligatzen duzu eta hark oso gutxi. Hori dela eta, zutaz gaizki esaka jardungo du. Bestalde, atzeritrik berri onak jasoko dituzu.

VIRGO

abuztuak 23-irailak 22



Besteren akatsak kritikatu baino lehenago, zuk zeuk ere badituzula pentsa ezazu. Bestalde, etsituta egongo zara, inbertsio batzuek ez dute-eta esperetako fruiturik eman. Azkenik, lasaitasuna eta postasuna ekarriko dizkizuten familia harremanak.

LIBRA

irailak 23-urriak 22



Lanean ardura asko izango dituzula-eta, ezin izango duzu gura beste denbora egon familiakoekin, eta horrek etsipena eragingo duzu.

SCORPIUS

urriak 23-azaroak 22



Daramazun bizimoduan kaosa eta desordena da nagusi; bada, garaia da hori guztiori atzean uzteko eta bizimodua berregituratzeko. Eta lanean hasi beharko zenuke berregituratze hori, diru aldetik eskas antzean zabilta-eta..

SAGITTARIUS

azaroak 23-abenduak 21



Diru estra bat jasoko duzu, eta horrek asko lagun-dukizu azkenaldian egin dituzun gastuei aurre egiteko. Bestalde, lanean ardura gutxiago izango dituzula-eta, familiakoekin eta lagunekin egoteko denbora luzeagoa izango duzu.

CAPRICORNUS

abenduak 22-urtarrilak 20



Lagunak erabiltzen dituzu zure kezak eta desadostasunak agerrarazteko, eta hori ez da egokia. Horiek agerraraztea zeuri dagokizu, eta ikusiko duzu emaitza hobeak lortuko dituzula.

AQUARIUS

urtarrilak 21-otsailak 20



Seme-alabekin hartu-eman ona izango duzu; haiek euren arazoak kontatuko dizkizute, eta zuk lagun-dukizue diezu. Bestalde, sariren bat irabaz zenezake zorizko jokoren baten.

PISCIS

otsailak 21-martxoak 20



Hainbat lan proposamen egingo dizkizute. Bestalde, hainbat proiektu aurrera eramango dituzu, eta emaitza politikak lortu. Azkenik, jende berria ezagutuko duzu, eta neskaen/mutilen batekin amodio harremana has zenezake.



Ekainaren 21a: 006 zozketa

Harpidedunen txokoa

Sariak, astero!

Astlehenean, ekainak 21, sari hauek izen-abizenak izango dituzte.
Astleheneko Goienkaria-ren harpidedun bazara, adi:

Zeu izan zaitezke sari hauen irabazleetako bat!

Ekainaren 21eko sariak

- Donostiako **AQUARIUM**era joateko sei gonbidapen (saridun bakoitzarendako bi sarrera).

- **YELMO CINEPLEX** (Gorbeia merkataritzagunean) zinematara joateko lau gonbidapen (saridun bakoitzarendako bi sarrera).

- **'EUSKAL HERRIKO HEZEGUNEAK'** liburua. Hezegune izenburupean, Euskal Herri osoko ekosistemak batzen ditu. Mikel Estonba / Elhuyar.

- **UMEENTZAKO LIBURU SORTA** Erein argitaletxearen eskutik.



UZTAILEAN, ADI!

Karibera bi lagunendako bidaia zoragarria zozketatuko dugu.
Astebete Dominikar Errepublikan, bost izarreko hotelean, guztia barne!

BALDINTZAK

- Astleheneko Goienkaria-ren harpidedun izatea da baldintza bakarra.
- Irabazleekin gure harpidetza saila jarriko da harremanetan.

Harpidedun egiteko:

902 36 38 51

Astleheneetik egubakoitzera,
9:00etatik 21:00etara.

Urte amaierara arteko harpidetza: **20 €**

ASTELEHENEKO
Goienkaria
astlehenean, aste bukaera osoa

005
zozketa

saridunak

Hauek izan dira
aurreko zozketako irabazleak.
Zure izena zerrendan badago,
ZORIONAK!

AQUARIUMerako
sarrerak

- Alberto Loiti Agirre
(Arrasate)

Focus Ocean
markako

PRISMATIKOAK:

- Eba Berezibar
(Aretxabaleta)

AQUARIUMerako
sarrerak:

- Andoni Zendoia
(Oñati)
- Josetxo Muniategi
(Bergara)
- Itsaso Uriarte
(Aretxabaleta)
- Aitor Uribarren
(Arrasate)
- Ramon Guridi
(Bergara)
- Jose Mari Ganboa
(Arrasate)

YELMO
Cineplexerako
sarrerak:

- Simon Etxezarreta
(Bergara)
- Mertxe Lamariano
(Antzuola)
- J. Intza (Oñati)
- Maider Perez
(Arrasate)

'Euskal Herriko
SOINU-TRESNAK'
jokoa:

- M. Carmen Iñurria
(Arrasate)



Astebete
EGUBAKOITZA 18 / 20:30 eta 22:30



Lanabesak
MARTITZENA 22 / 20:30 eta 23:30



Eskuak elkarri
MARTITZENA 22 / 21:15



Iluntzean
EGUENA 24 / 21:15 eta 23:15

Garun erasana duten gaixoak 'Astebete'-n

ATECEK, garun erasana duten gaixoen elkarteak, egoitza berria inauguratuko du bihar, Arrasaten. Karmele Barrutia koordinatzaileak (argazkian) proiektu berriaren gainekoak kontatuko dizkigu, eta istripua izandako bi gaztek, euren esperientzia.

Espaloia Kafe Antzokiaren gaineko erreportajea

Elgetako Espaloia Kafe Antzokiko lanak amaitzear daude. Horren berri eman-go digute martitzenean *Lanabesak* saioan. Besteak beste, Elgetako alkatearekin, Kultura zinegotziarekin eta lanak egin dituen arduradunarekin izango dira.

'Eskuak elkarri' emanaldia telebistan ikusteko aukera

Arrasateko Goikobalu abesbatzakoek eta beste hainbat herritarrek lan ederra egin dute. Ekainaren 11n antzetzutu zuten aurrenekoz *Eskuak elkarri* antzezlan musikatua. GOITB hantxe izan zen, eta martitzenean oso-osorik eskainiko dizue.

Jose Antonio Ardantza lehendakari ohiarekin

Jose Antonio Ardantza Euskal Autonomia Erkidegoko lehendakari ohiaren elkarrizketatuko du Aintzane Gardoki kazetariak *Iluntzean* saioan. Gaur egun, Euskaltel enpresako presidentea dugu Ardantza. Duda barik, izango du zer kontatu.

TELEBERRIAK

Pausoka: EitBrendako programa gehien egiten duen etxea

Pausoka da EAEko telebista publikorako programa gehien egiten dituen produktio-etxea. 1988an sortu zuten, eta orduetik hona 2.500 telebista ordu baino gehiago landu ditu. 40 programatik gora egin ditu telebistarako, horietatik gehienak lehenengo kate-rako. Eta, jakina, Pausokako lanen artean, izarra *Goenkale* telesaila da (1994-2004). Aurtengo denboraldian dagoeneko gauditu du 1.900 kapitulu-luena muga telesailak. *Goenkale*-rekin batera, aurtun, ETB1endako, *Kuxkuxeroak* eta *Ikusgela* saioak egin ditu, eta ETB2endako, *Vaya Semanita!*. Pausokak etxetik kanpo ere egin du lan, A3, Telemadrid eta T5 kate-endako, hain justu ere.

ASTEKO PROGRAMAZIOA / Ekainaren 18tik 24ra



EGUBAKOITZA 18	ZAPATUA 19	DOMEKA 20	ASTELEHENA 21	MARTITZENA 22	EGUAZTENA 23	EGUENA 24
13:30 Gatza eta berakatza 14:00 Sarrera doan 14:30 Berriak 15:00 Iluntzean 15:30 Berriak 16:00 Gatza eta berakatza 16:30 Emisio amaiera	13:30 Astebete 14:15 Soinuz blai 14:45 Txintxaun 15:30 Iragana gogoratuz: Fagorren sorreraren gaineko erreportajea eskainiko digu Maria Agirre kazetariak. 16:30 Lanabesak 17:00 Oñatiko Gorpuzti eguna: Oñatiarrendako urteko jai nagusienetakoa da Gorpuzti eguna. 17:15 Sarrera doan 17:45 Iluntzean: Izaro Iraeta aurkezlearekin solasean. 16:30 Emisio amaiera	13:30 Astebete 14:15 Soinuz blai 14:45 Txintxaun 15:30 Iragana gogoratuz: Fagorren sorreraren gaineko erreportajea eskainiko digu Maria Agirre kazetariak. 16:30 Lanabesak 17:00 Oñatiko Gorpuzti eguna: Oñatiarrendako urteko jai nagusienetakoa da Gorpuzti eguna. 17:15 Sarrera doan 17:45 Iluntzean: Izaro Iraeta aurkezlearekin solasean. 16:30 Emisio amaiera	13:30 Gatza eta berakatza 14:00 Astebete 14:30 Berriak 15:00 Soinuz blai 15:30 Berriak 16:00 Gatza eta berakatza 19:45 Emisio hasiera 19:45 Gatza eta berakatza 20:00 Berriak 20:30 Harmailatik 21:00 Gaurkoak 21:15 Harmailatik tertulia 21:45 Gatza eta berakatza 22:00 Berriak 22:30 Harmailatik 23:00 Gaurkoak 23:15 Harmailatik tertulia 23:45 Emisio amaiera	13:30 Gatza eta berakatza 14:00 Harmailatik 14:30 Berriak 15:00 Harmailatik tertulian 15:30 Berriak 16:00 Gatza eta berakatza 19:45 Emisio hasiera 19:45 Gatza eta berakatza 20:00 Berriak 20:30 Lanabesak 21:00 Gaurkoak 21:15 Eskuak elkarri 22:45 Gatza eta berakatza 23:00 Berriak 23:30 Lanabesak 23:45 Emisio amaiera	13:30 Gatza eta berakatza 13:45 Lanabesak 14:30 Berriak 15:00 Eskuak Elkarri 16:30 Berriak 19:45 Emisio hasiera 19:45 Gatza eta berakatza 20:00 Berriak 20:30 Txintxaun 21:00 Gaurkoak 21:15 Soinuz blai 21:45 Gatza eta berakatza 22:00 Berriak 22:30 Txintxaun 23:15 Gaurkoak 23:30 Soinuz blai 23:45 Emisio amaiera	13:30 Gatza eta berakatza 14:00 Txintxaun 14:30 Berriak 15:00 Soinuz blai 16:00 Gatza eta berakatza 16:30 Emisio amaiera 19:45 Gatza eta berakatza 20:00 Berriak 20:30 Sarrera doan 21:00 Gaurkoak 21:15 Iluntzean: Jose Antonio Ardanza 21:45 Gatza eta berakatza 22:00 Berriak 22:30 Sarrera doan 23:00 Gaurkoak 23:15 Iluntzean 23:45 Emisio amaiera
22:30 Astebete	17:00 Gorpuzti eguna	15:30 Iragana gogoratuz	21:15 Harmailatik tertulia	21:15 Eskuak elkarri	20:30 Txintxaun	21:15 Iluntzean

GOIENA TELEBISTA / Posta elektronikoa: goitb@goiena.com • Telefonoa: 943 71 23 95



LASAGABASTER

www.lasagabaster.com

Zerkaosteta, 1 eta 2 • ARRASATE • Tel.: 943 79 27 27 / 943 79 13 55



RENAULT SERVICIOS

carrocería rápida

ARTE ABSTRAKTUA MUSEOETAN DAGO ONDO, EZ ZURE AUTOAN.
CARROCIERIA RÁPIDA: KONPONKETAK 24 ORDUEN BARRUAN.

Urradurek, kolpe txikiak, kristal argi nahiz atzerako ispilu apurtuek ez dute ongi ematen zure autoaren karrozerian. Horregatik, guk 24 orduen barruan konpontzen ditugu, alde zuzeneko hitzordu barik eta unean bertan egindako aurrekontuarekin, idatziz eta konpromiso barik. Eta hala ez bada, ordezko ibilgailu bat doan.

Renault Servicios. Gelditu ez zaitez mugitzen gara.

Buruan baduzu, hemen duzu. www.renault.es

Pieza de Origen **Renault**
Espíritu Renault

RENAULT
recomienda **elf**

RENAULT
AUTOBERRI
S. Andres auzoa, 8. • Tel. 943 71 24 72
ARRASATE

kalitateko haragia eska ezazu bere izenez



EUSKAL OKELA

Eusko Labela duen bakarra

EUSKAL OKELA
EUSKO LABEL
KALITATEA

CARNE DE VACUNO DEL PAIS VASCO

BAIMENDUTAKO HARATEGIA
EUSKO LABEL
KALITATEA

Soilik Harategi hauetan

Baimenduak: Euskal Okela saltzeko Harategi Baimenduak.
Artisauak: Baimenduak izateaz gain, Euskal Okelarekin eta Eusko Labela daramaten beste produktu batzuekin konpromiso handiagoa duten harategiak.

- ANTZUOLA**
GABILONDO ARREGI HARATEGIA
KALEBARREN, 14
- ARAMAIO**
BIXENTE L. AZPILIKUETA HARATEGIA
BIXENTI GOIKOETXEA PLAZA, 8
- ARRASATE-MONDRAGON**
LANDALUZE HARATEGIA
ITURRIOZ, 7
- JOSE MARI SALEGI HARATEGIA
OLARTE KALEA, 20
- AZPILIKUETA HARATEGIA
DOCTOR BAÑEZ, 10
- AZPILIKUETA HARATEGIA
ERGUIN, 12
- KORTABERRI HARATEGIA
ANTXO ABARKA, 1
- BERGARA**
ANDRES MUJIKA HARATEGIA
DOMINGO IRALA, 5
- BIXAIN HARATEGIA
AZOKA PLAZA PTO. 5-6
- ALDAI HARATEGIA
ESPOLON, 12
- ESKORIATZA**
ZUBIA HARATEGIA
SANTA ANA, 11
- OÑATI**
ANTXON HARATEGIA
SAN LORENTZO, 5
- TARSICIO HARATEGIA
PORTU KALEA, 2
- GARAY HARATEGIA
MAITZAREN LEHENA PLAZA, 2
- SUPER BM OÑATI-HARATEGIA
OLAKUA AUZOA, 8

Atzeskua

OIHANA ELORZA

Joana Lasa/ Irakaslea

Zer falta zaizue antolatzeke domekako Araba Euskaraz-erako?

Txosnak muntatzen dihardugu, besteak beste. Eguaztenean ekarri zizkiguten, eta zapatu iluntzerako denak jarri behar ditugu, ze erremedio.

Ibilbidea gertu dago?

Lau kilometro ditu, eta lau gune, eta gune bakoitzean edariak, ogitartekoak eta materiala salduko dituzten txosnak jarriko ditugu.

Beste guztia gertu duzue dagoeneko?

Bai. Orain, domekan dena ondo irtetzea falta zaigu, besterik ez.

Zer moduz ibili zarete guztia antolatzeke? Arazorik jarri dizuete?

Bastida inguratzen duten herriak Errioxakoak dira, eta arazoak ditugu seinalez-tatze kartelak jartzeko, ez digute uzten. Dena dela, ahaleginduko gara domekarako berriro jartzen, nola edo hala.

Gainontzean, oso ondo. Orain dela urtebete hasi ginen prestaketekin, eta hainbat talde sortu ditugu. Bakoitzak arlo baten ardura hartu du: ibilbidea, komunikabideak, materialaren banaketa eta salmenta, besteak beste. Zazpi bat talde guztira. Egia esan, nahiko

ondo antolatu gara, eta jendeak gogotik egin du lan.

Sardinak egongo omen dira gune batean.

Bai, Mutrikutik sardina kilo mordoia ekarriko dituzte guztiondako.

Ardorik ere ez da falta izango, ezta?

Ez, ez, ezta arkume saiheskirik ere. Abrako gunean, adibidez, menu berezia egongo da: saiheskiak xirmendutan erreko dituzte, Arabako Errioxako hainbat herritan egiten den moduan. Eta herriko upeltegi batek ardo zaharra emango du.

Aparkalekuaren arazoa konpondu duzue?

Bai, ez dugu batere arazorik izan. Landu gabe dauden lursail asko daude, eta jabeekin hitz egin ostean, ez digute batere arazorik jarri.

Ikastola berria eraikitzeke erabiliko duzue dirua, ezta?

Une honetan 134 ikasle eta 12 irakasle gaude, baina gero eta haur gehiago matri-

kulutzen dira, eta laster arazoak izango ditugu denok sartzeko. Ikastola berriak, gainera, informatika gela, jangela eta beharrezkoak diren beste zerbitzu asko izango ditu.

Ikasle erdiak baino gehiago Errioxakoak omen dituzue.

Egunero autobus handi bat etortzen da Harotik, eta beste autobus txiki batek Miranda, Salinillas eta San Vicente de la Sonsierra herrietako haurrak ekartzen ditu, adibidez.

Aurten, gainera, 25 urte bete ditu ikastolak.

Bai, eta era bitxian zabaldu zituen ateak, gainera. Irakaslea, Amaia, Gasteizen bizi zen, eta han jai zuten, Araba guztian zutela uste izan zuen, eta ez zen lehen egunean ikastolara etorri. Zazpi ikasle joan ziren lehenengo egunean, eta haien gurasoekin batera, hantxe gelditu ziren, ate aurrean zain.



“Ardoa, sardinak eta arkume saiheskia xirmendutan erreta prestatuko ditugu”

“Ikastolaren lehen egunean, irakaslea, Amaia, ez zen etorri, Gasteizen ez ezik Araba osoan jai zutela uste zuen-eta”

“Ez digute uzten seinaleztatze kartelak Errioxako herrietan jartzen”

► Arrasate / 25 urte / Araba Euskarazko antolatzailea

PIPERRAUTSA

Elorriora

Urtero, sasoi hau iristen denean, luzatzen dizuet gonbita Elorrio aldera jotzeko. Aurten ere etorri da Musikaire jaialdien garaia. Eta gonbidatuta zaudete.

Gaur bertan hasiko da egitaraua, eta zazpi asteburuz luzatuko. Aurten dira hogeiki ekitaldi, ze igande arratsaldeak ere sartu dira programan, gehienbat kale animazioko emankizunekin. Musika da nagusi, eta musiken artean mundukoa. Aurten ordezkatuta daude Madagaskar eta Grezia, Maroko eta Kuba, Brasil eta Alemania, Txina eta Euskal Herria. Antzerkia ere izango da eta dantza, Miarritzeko baleta. Eta ikuskizun multimedia ikusgarria. Mazedonia kontzeptua erabiltzen dugu antolatzaileok. Eta aurtengo mazedonia inoizko exotikoen izango da.

Gogoratu emankizun gehienak aire librean direla, Elorrioko txoko ederretan. Ezagutzen duzue Argiñetako baseliza, edo Lurdesko koba edo Tola jauregiko lorategia? Ezagutzekeak dira, benetan. Formatu handiak, berriz, emango dira Elorrioko plaza ederretan. Kasu guztietan, argiz bereziki apaintzen dira tokiak eta emaitzak izaten dira harrigarriak.

Lotsa hartuko nuke Elorriori horrenbeste publizitate eginda, baldin eta Musikaireko emanaldiak ordainduzkoak balira. Libre aritu naiz sarrera doan delako, kasu guztietan. Arrazoi bat gehiago Elorriora hurbiltzeko.

Informazio gehiago, www.musikaire.com helbidean. Eta hemen, GOIENKARIAn.

MIKEL IRIZAR



DAMKAR'T

Estetika eta ile-apaindegi profesionalen eskola
ANCEPEK homologatua

- Kalitatezko prestakuntza osoa
- Etorkizun handiko lanbidea
- Irakasle kualifikatuak
- Ikasturte hasieratik praktikak

Bittor Sarasketa 7, 3
 Tel.: 943 127 152 Faxe: 943 121 518
20.600 EIBAR
 Posta-e: damkar.t@terra.es

20 urtean prestatutako profesionalak dira gure bermea

Matrikula zabalik!
 Plaza mugatuak!

